

Herri kirol jardunaldia
Altsasun, domekan



Kirolak >> 11

Altsasuko duatloiaren zazpigarren edizioa jokatu da bihar. 10:30ean **Nafar Kirol Jolasak** eta 15:45ean nagusien proba



Kirolak >> 13

Irurtzundarrek 35.000 euro zertan inbertitu erabakiko dute >> 9



2917 sakandar galdeketen alde

>> 3



Bakaikun euskalkia ikasteko saioa

>> 5



Astlehenetik aurrera Irakurri, Gozatu eta Oparitu

>> 15



Haur eta gaztetxo kantariak Lakuntzan

>> 15

ZORION agurrak

Argazkiak emateko lekua: • Altsasu: Foru Plaza 23-1 • zorion@guaixe.eus
• Ordainketa, Guaixeren bulegoan edo ondoko kontu zenbakian egin daiteke:
ES 56 3035 0018 47 0181012564

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!



Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa • Balkoien eta terrazen itxitura • Kolore guztietako mallorkinak • Konpromezurik gabeko aurrekontua

info@dekovenavarra.com • www.dekovenavarra.com
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia • ALTSASU
Telf./Faxa: 948 468 360 • Telefono mugikorra: 690 641 860



Onintza eta Lexuri
Dantza eta txiruliruli
Ondo pasa zuek bi. Etxekoak



Enara
ZORIONAK ENARA!!!!
Ongi pasa eguna guapa.
Asko maite zaitugu.
Eukene, Izei, Olaia eta familia.



Lexuri Lazkoz Ruiz
Zorionak printzesa! 9 urte beteko dituzu igandean, ea oso ongi pasatzen dugun denok zure bizkotxo jaten. Muxu pila bat famili guztiaren partez.



Nora Esnaola Mendieta
Zorionak Printzesa!
Duela urte bat jaio zinen gure bizitzak guztiz alaitzeko. Muxu goxo bat familiaren partez.



Adei
Adei, zorionak maitia, zue onduen nola fan dan denbora. Muxu goxo goxuek amaxon eta eittan partetik.



Adei
Adei, lau urte txapel-dun! Txilibito, txorixo pamplona! Segi baztarrak nahasten, Aitor, Haizea eta etxeko guztiaren partetik zorion zukadak.

Tailerrak

Sexu-heziketa familian. Martxoaren 17an, ostiralean, eta 21ean, asteartean, 15:30etik 17:00etara Irurtzango eskolan. **Jesu Baena Moya sexologia eta erizaina.** Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak.

Serigrafia, tote bag. Martxoaren 17an, ostiralean, 18:00etan Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

Bakaikuko euskerian ikastaria. Martxoaren 17an, ostiralean, 18:30etik 19:30era Bakaikuko udaletxeko goiko aretoan.

Erasoa ekiditeko eta behin gertatu denean zer egin dezakegun jakiteko aholkuak. Martxoaren 21ean, asteartean, 18:00etatik 19:30era Uhartte Arakilgo udaletxean. **Belen Perez de Prado.** Laguntza programako teknikaria. Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak.

Bestelakoak

Tres tristes trileros: Arbeloa, Del Burgo eta Aizpun. Martxoaren 17an, ostiralean, 19:00etan Irurtzango Pikuxar euskal txokoa. **Hizlaria: Patxi Zabaleta.** Liburu aurkezpena.

Izotz pistara irteera. Martxoaren 18an, larunbatean, 17:00etan Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

Deialdiak

Adinarekin gure eskubideak ez dira bukatzen. Martxoaren 17an, ostiralean, 12:00etan Altsasuko Zumalakarregi plazan. Nafarroako Pensionistak Martxan.

Altsasukoak aske. Martxoaren 17an, ostiralean, 19:00etan Altsasuko udaletxe parean.

Euskal Presoak Euskal Herrira! Martxoaren 17an, ostiralean, 20:00etan Arbizuko eta Etxarri Aranazko plazetan, elkarretaratzeak.

Batzarra. Martxoaren 18an, larunbatean, 11:00etan Urdiaingo auzoan. Urdiaingo Udala.

Beilatokia toki egokian. Nahi izanez gero posible da. Martxoaren 19an, igandea, 12:30ean Etxarri Aranazko Kale Nagusiko 7. zenbakian.

Euskal Presoak Euskal Herrira! Martxoaren 19an, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

Marsuak

17-23

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.eus

Musika

Ganbera musika. Martxoaren 17an, ostiralean, 19:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean.

Petti. Martxoaren 17an, ostiralean, 22:30ean Olatzagutiko Barandi tabernan.

Puro Relajo. Martxoaren 18an, larunbatean, 19:00etan Lakuntzako kultur etxean.

Ta Lauén. Martxoaren 18an, larunbatean, 19:00etan Altsasuko Haritza tabernan.

Zea Mays. Martxoaren 18an, larunbatean, 23:00etan Etxarri Aranazko gaztetxean.

Nafarroako Haur eta Gaztetxo Kantarien Jaialdiak. Martxoaren 19an, igandean, 18:00etan Lakuntzako kultur etxean.

Dantza

Udaberriko festa jaialdia. Martxoaren 18an, larunbatean, 19:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean. Altsasuko Musika eta Dantza eskola.

Antzerkia

Maita zera ere! Martxoaren 18an, larunbatean, 19:00etan Arbizuko Argibidea elkartearen.

Proiektzioak

Euskal proiektzioa III Martxoaren 12an, domekan, 20:00etatik 22:00etara Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

Dokumentalak

Motxila 21 live, zuzenean, en vivo. Martxoaren 17an, ostiralean, 20:00etan Irurtzango kultur etxean eta martxoaren 21ean, asteartean, 18:00etan Lakuntzako kultur etxean.

Zinema

Elle. Martxoaren 17an, ostiralean, 21:45ean eta martxoaren 19an, domekan, 20:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean.

Lion. Martxoaren 17an, ostiralean, 22:00etan eta martxoaren 19an, domekan, 20:10etan Altsasuko Iortia kultur gunean.

Blinky Bill. Martxoaren 19an,

Korrika kulturala



Umore-bakarrizketa. Martxoaren 19an, domekan, 19:30ean Urdiaingo Kaluxa tabernan. **Barry Manley.**

domekan, 12:00etan eta 17:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean.

Lo que de verdad importa. Martxoaren 23an, ostegunean, 19:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean.

Film laburrak

Berdintasunari buruzkoak. Martxoaren 19an, igandean, 19:00etan Irurtzango Pikuxar euskal txokoa. Katti Goikoetxeak bideratuta.

Bizikleta irteerak

Altsasu-Beasain-Altsasu (70 km). Martxoaren 18an, larunbatean, 10:00etan Altsasuko Baratzeko bideko lokomotoratik.

Arabako trikuharriak (50 km). Martxoaren 19an, domekan, 9:00etan Altsasuko Zumalakarregi plazatik. **Barranka txirindulari taldeko mendi bizikleta taldea.**

Erakusketak

Oroimenaren begirada arte-terapiaren ikuspuntutik. Apirilaren 2ra arte astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domekan 19:00etatik 21:00etara, Altsasuko Iortia kultur gunean.

Ixildutako emakumeak. Martxoaren Irurtzango osasun etxean.

Hitzaldiak

Errespetuzko komunikazioa. Martxoaren 22an, asteazkenean, 14:45ean Altsasuko Lanbide Heziketako institutuan. **Hizlaria: Nerea Mendizabal.**

Esentzi-olio terapeutikoak pediatria arloan. Martxoaren 22an, asteazkenean, 17:00etan Arbizuko Kattuka haur eskolan. **Hizlaria: Lierni Aboitiz.**

Hizketaldia

Hilerokoa. Gure emakume energiarekin bat eginez. Martxoaren 18an, larunbatean, 18:00etan Irurtzango liburutegian kafe tertulia. **Rosa Legarra.**

Literatura

La librería ambulante (Christopher Morley) Martxoaren 17an, ostiralean, 21:00etan Olatzagutiko liburutegian. **Irakurle taldea.**

Ostiralero SAIOA
9:30ean
Errepikapenak: 14:00 - 19:00

Astehenetik ostegunera
Metropoli forala
9:00etatik 11:00etara



Esataria: Maider

Gaurko gaiak:

- Altsasukoak 4 hilabete preso.
- Sakana triatloi taldea.
- Gure Esku Dago: Sinaduren balorazioa.
- Leire Maiza txirindulariarekin talde berriaz hizketan.

107.3 FM
beleixe
www.guaixe.eus-en ON LINE

SAKANA

2.917 sakandarren babes



Sakanako 7 herrietako Gure Esku Dago-ko ordezkariak.

Garagarrilaren 18an erabakitze eskubidea praktikan jarriko dute Irurtzun, Lakuntza, Arbizu, Urdiainen, Altsasun, Olaztin eta Ziordian

Gure Esku Dago Irurtzun, Lakuntza, Arbizu, Urdiain, Altsasu, Olaztagutia eta Ziordiko taldeko kideak sinadurak biltzen eman dituzte azken bi hilabeteak. Garagarrilaren 18an erabakitze eskubidea praktikan jarri nahi dute lurraldetasunari buruzko galdeketaekin. Hori lortzeko beharrezkoa zuten herri

bakoitzean eroldaren %10aren babes lortzea. Lortu dute eta zuzietan erabakitzea doaz. Eta Gure Esku Dago kideak prest daude la gaztigatu zuten.

Balorazioak

Zazpi herrietako taldeetako ordezkariak jendaurreko ekitaldia egin zuten Lakuntza igandean eta hantxe aurkeztu zituzten emaitzak (Altsasun eta Olaztagutian ere aurretik egin zuten). Herri bako-

tzeko bozeramaile banak sinadura biltzetaren inguruko balorazio azkarrak egin zuten. **Irurtzungo** Gure Esku Dago kideak ekimenaren mar-txa "oso ondo" joan dela. **Lakuntzarrak** "oso pozik" zeuden, "herri erdiak" Gure Esku Dago zer den badakielako. Argitu zuten, "gazteei asko kostatu zaie. Gazte jende-ak ez du baloratzen erabakiaren eragina edo kosta egiten zaie. Galdeketa bitartean lana badugu". **Arbizu** abenduaren 30eko krisei-

lu gauarekin hasi eta txatarretan despeditu zuten sinadura biltzeta "festa giroan". Etxez-etxe joateko ahalegina egin dute, "jendearekin harreman zuzena izateko eta aurrez aurre zer den azaltzeko. Pozik gaude emaitzarekin eta Sakanako emaitzarekin, oso onada".

Urdindarrek herritarren talde argazkia atera zuten eta harekin etxetik etxe banatzeko informazioa egin zuten. Adierazi zuten, "aberasgarria herritar guztiengana ez iritsi arren, sinatu zutenekin eta ez zutenekin, denekin hitz egin da eta gauza polita da denen artean hitz egitea". **Altsasuko** Gure Esku Dago 800 sinadura biltzea zuen helburu, baina gehiago lortu dituzte. "Jende desberdinarengana iritsi gare-

lako gustura gaude. Beste hainbat jenderengana iristeko lan handia dugula ikusten dugu, are gehiago gure herria zein anitza den jakinda". Galdeketa bitartean ahalik eta jende gehienarengana hurbildu nahi dute. **Olatzagutiako** ordezkariak "sentsazio gazi-goza" adierazi zuten; gazia "espero ez genituen hainbat ezezkorengatik, gozoa sentibiltate desberdineko jenderengana iristea lortu dugulako, prozesurako aberasgarria izanda". Egingoak lana, "orokorrean ona" izan dela uste dute. **Ziordiarrendako**, azkenik, "esperientzia positiboa" izanda; "gehiengoak baiezkotza, sorpresa positiboa, espero ez genituen sinadurak jaso ditugu". Hala ere, aitortu zuten "sektore batzuetara iristea zaila" dela.

Herria	Sinadura kopurua	Erroldaren ehunekoa
Irurtzun	370	%20
Lakuntza	541	%52
Arbizu	334	%37
Urdiain	267	%51
Altsasu	935	%18
Olatzagutia	330	%25
Ziordia	140	%43

Sakana Triatloi Taldea 2017



Martxoaren 11an egin zuten aurkezpena 2017ko Sakana Triatloi Taldeak, Dantzaleku paraje zoragarrian. Zuzendaritza taldean, besteak beste, Sergio Garcia de Eulate lehendakaria, Juan Luis Maiza, Aitor Mozo eta Unai Razkin daude. Aurten 35 kide daude, 22 eliteen mailan eta 15 Nafar Kirol Jolasetako kategorietan.

ELITEAK (22): Isidro Asurabarrena, Urko Berdud, Javier Borrega, Jose Manuel Borrega, Sergio Garcia de Eulate, Mikel Lakuntza, Juan Luis Maiza, Juan Carlos Gomez, Francisco Javier Gomez, Esteban Berdud, Gorka Garcia de Eulate, Jorge Iradi, Iñaki Alvaro, Borja Gonzalez, Eneko Iturbe, Ivan Sobredo, Aitor Mozo, Juan Martinez del Olmo, Jokin Lazkoz, Iñaki Gallego, Peio Bergara eta Cecilia Lobato. **NAFAR KIROL JOLASAK (13):** Aurrebenjaminak: Eneko eta Asier Razkin eta Oihan Andueza. Benjaminak: Ekain Imaz, Alain Razkin, Aitor Aldunate eta Ane Iturrioz. Kimuak: Hegoi Lakuntza. Haurrak: Xabier Borrega eta Nahia Imaz. Kadeteak: Leire Maiza, Unai Villalobos eta Fermin Azkargorta.



Marian Mendiola Barandalla

Erromesaldiak, elkarrekin oinez

astekoa

Eguzki printzak epeltzen hastearekin batera, edozein aitzakia da ona kalera atera eta haizatzeko. Askok Xabierko Gaztelua hartzen dute jomugan.

Beti atentzia eman dit Kristau nafarrek parte hartzen duten erromesaldi handiak, Xabierraldiak, sekula egin ez badut ere. Haur nintzela gogoan dut ibilal-ditik bueltan zetozenak nola ari-tzen ziren kezaka zapatilen urradurek eragindako baben oinaze-

arekin. Frantzisko Xabierren izerdi odoltsuaren pareko penitentiak bailitzan. Gainera, ez dut ahaztua, fedea sexuen artean banandua zegoela. Aurtengo leloa *Elkarrekin oinez* bada ere, garai batean gizon eta emakumeek ez zuten erromesaldia egun berean egiten. Gauregun mistoa edo nahastua egiten dela esaten bada ere, oraindik orain askorentzat martxoko lehen igandeko Xabierraldia gizonena da, aldiz,

bigarren larunbatekoa emakumeena.

Dena den, multzoka egindako erromesaldijendetsuei baino xarma gehiago bilatzen diet bakanka dabilzaneiei. Bidaide bakarra fedea edo dena delakoa duten horietako asko Done Jakue bidean aurki genitzake, gaztelu horretatik gertu-gertu. Eta horren harira, "nahigabe" eta "ustekabe" aurkitu dudana istorio bitxi bat kontatuko dut; Xabierko gaz-

telu honen gerizpean sortutako Jimena Garcés (Scemena Garseanes) emakume nafarrari buruzkoa. Esaten da bera izan zela Santiagora iritsi zen lehen erromesa (X. mendean). Baina, bere "balentria" eta aitortza ez da toki askotan azaltzen. Bidearen historian ohorezko tokia eta errekonozimendua Godescalco-k jaso zuen, Le Puy-ko apezpikuak. Horrekin batera, agian, monarkiaren zerikusit gutxi izan zuten

(eta duten) makina bat emakumeren arrastoa eta izenak ere galduak izanzen dira fededunen bidez horietan. Hargatik, ahaztutako emakume guzti-guztien erreferenteak argitara atera behar ditugu, beren ekarpenek jendar-tearen garapena ere egin dutelako. Tori agur konplize bat: Ultreia et Suseia!!! (erromesen artean animoak emateko erabiltzen duten diosala: harantz goaz, aurrera jarrai dezagun).

barrutik kanpora

Ziurtatu telefonia konpainiaren estalduraz mugikor linea bat kontratatu aurretik

Operadore batekin mugikor linea bat kontratatu aurretik, ziurtatu honek estaldura ematen duela telefonoa erabiliko den ohiko lekuetan. Azkeneko hilabeteetan hamarnaka pertsona etorri dira ohartu direnak, mugikor linea berri bat kontratatu ondoren edo beste konpainia batera eramangarritasuna burutu ondoren,

orain estalduraz dutela haien telefonoa sarritan erabiltzen duten leku askotan, bizi diren hirian zein haien lanlekuan, adibidez.

Horrela, kontsumitzailea kontratzen da askotan egoten den lekuan ezin duela deitu, mezurik bidali edo interneten sartu. Arazo hauek maizago suertatzen dira oso handiak ez diren herrie-

tan eta batez ere eremu menditsuetan. Hala ere, kaltetuak Nafarroako erdialdeko eta Erriberako herrietatik ere badatoz. Kasuak egon dira Kaparroso, Sesma, Lizarralde, Zarrakaztelu, Lodosa, Ezkabarte, Sakana edo Baztanen.

Kontsumitzailea ohartzen denean agindutako estaldura-

rik ez duela eta hala jakinarazten duenean, konpainiak estaldura eza ukatzen du eta ez du konponbiderik ematen. Bezorak ez du beste konpainia batera joateko aukerarik baizik, baina bere erabakia azaltzen duenean operadoreak jakinarazten dio hitzartutako iraunkortasun klausula ordaindu beharko due-

la; honen kopurua 300 euro artekoa izan daiteke. Kasu hauetan, Iratxe eskatzen ari da erabiltzaileari erabili ezin izan duen mugikor linea batengatik ez kobratzea eta, bestalde, kontsumitzaileari beste konpainia batera joatea utz dakion inolako penalizaziorik ordaindu gabe.

Iratxe Kontsumitzaileen Elkarte

objektibo tik



The Edge of the World Urban:

Sakanako Mirua Actividades Turísticas enpresak Txinan audientzia gehien duen bidaien telebista saioko ki-deak gidatu zituen Urbasatik barna. (375 milioi ikusle).



Arakilgo Buelta:

Mendizale asko, 40 lagun inguru, animatu ziren, igandean, Arakilgo buelta egitera. Bidearen erdian, Hiriberrin, Txitera elkartean gosaldia ondoren atera zuten talde argazkia.

objektibo tik: gutunak@guaixe.net

Guaixe  

ERREDAKZIO BURUA: Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.eus
ERREDAKZIOA: Mainer Betelu Ganboa • kirolak@guaixe.eus
MAKETATZAILA: Ruben Imaz Alcaide • maketazioa@guaixe.eus
PUBLIZITATEA: Maria Saez de Albeniz • publizitatea@guaixe.eus
 eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.eus

ZUZENTZAILEA: Patxi Flores
ARGITARATZAILA: Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675
KOORDINATZAILA: Goizeder Anton Iturralde • fundazioa@guaixe.eus
DISEINU ZERBITZUA: GK• Ainhua Etxeberria Pikabea • gk@gkomunikazioa.eus
ADMINISTRAZIOA: Gixane Andueza Goikoetxea • admin@guaixe.eus
LEGE GORDAILUA: NA-633/1995
TIRADA: 3.200

LAGUNTZAILEAK:



Nafarroako Gobernua
 Gobierno de Navarra

>> Bakaiku

Herriko euskara ikastera

Gaur, 18:30etik 19:30era, Bakaikuko udaletxeko goiko aretoan

Koldo Zuazo hizkuntzalariak www.euskalkiak.eus web orria Bakaikun otsailaren 10ean aurkeztu zuen. Aurretik ere bakaikuarren artean euskalkia biziberritzeko nahia bazegoen, eta Zuazo parean zutela herriko euskara ikasteko zer egin zitekeen galde-tu zioten hizkuntzalariari. Eta hark erantzun: "gogo da garrantzitsuena". Orduetik herriko euskara berreskuratu nahi duten bakaikuarrek hirutan elkartu

dira eta hortik sortu da gaur hasiko den Bakaikuko euskerian ikastarua.

Ikastaroa lau ostiraletan izanen da (martxoaren 17, 24, 31 eta apirilaren 7an). Ordu bakarreko saio motzak izanen dira. Jendea lotzeko saio motz eta dinamiko-en alde egin dute. Ikastarorako ez da izen ematerik izan baina antolatzaileek bakaikuarrek erantzunen duela espero dute. AEKn irakasle dabilen Aitor Irigoien urdiaindarra izanen da saioak bideratuko dituena. Iri-

goienek badu euskalki ikastarotetan eskarmentua Altsasun ere horretan baitabil.

Lau saio horien ondoren euskalkian interesatutako bakaikuarrek balorazioa egingen dute eta funts gehiagoko zerbait egitea merezi duen aztertuko dute. Bitartean, idazki, kartel eta bestelako testuetan euskalkiaren presentzia nabarmentzen hasi nahi dute. Asmoen artean jende jarriari elkarrizketak egin eta grabatzea edota haur eta gazte-txoendako zerbait egitea.



Koldo Zuazorekin hainbat zalantza argitu zituzten bakaikuarrek. ARTXIBOA

SAKANA

Euskarazko udaleko eskaintza zabala eskura

Udako oporretan euren seme-alabak euskarazko udalekuetara bidali nahi dituzten gurasoak lagundu asmoz, Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak euskara hutsezko udalekuen eskaintzaren berri eman die. Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eskaintza zabala esku-orritan jaso du Euskara Zerbitzuak. Baita AEK-k antolatzen dituen familia-barnetegienak ere. Haur eta gazteak udalekuetara bidaltzen dituzten gurasoek Euskara Zerbitzuan diru-laguntza eskatzeko aukera izanen dute. Mank-en aurrekontua onartu zain, 7.500 euroko diru-poltsa aurrekusi da udalekuetara joanen direnendako. Behin aurrekontua onartuta, diru-laguntza eskarera iraila bukatu aurretik aurkeztu beharko lirateke.



Isun gehien jartzen dituen laugarren radarra Altsasun dago



Iparraldeko Autobiako (A-1) 401 km-an, Altsasuko Erkuden ermitaren parean, dagoen radarra Nafarroan isun gehien jartzen dituzten artean laugarrena da. Joan den urtean 7.609 isun jarri zituela jakinarazi du Automovilistas Europeos Asociados elkarteak. Isun gehien jartzen dituen radarra ez dago urrutiti: Leitzarango Autobiako (A-15) 127. km-an, Azpirotzaldean dago. 17.519 isun jarri zituen hark.

SAKANA

Stock azokarekin pozik



Maukak jende ugari erakarri zituzten Stock azokara.

Larunbata eta igandea Altsasuko Burunda pilotalekua merkatalgune bihurtu zen Sakanako Dendari, Ostalari eta Zerbitzuen elkar-tearen eskutik. Ibarreko bigarren stock azokak jende ugari jaso zuen. Haiek 14 dendetan erosteko aukera izan zuten. Altsasuko Dendari Elkarteko Elena Aldasorok azaldu digunez, "helburuak bete" dira. "Orokorren pozik gaude emaitzarekin, esperotakoaren antzekoa izan da," gaineratu du Aldasorok. Jakina denda batzuek besteek baino gehiago saldu zuten. Aurtengo

berrikuntzetako bat haurren txokoa izan zen eta harrera ezin hobea izan du. Hura antolatu duten Altsasuko Peñak oso pozik daude.



>> Urdiain

Gurasoen Euskara Batzordeak aurreneko txangoa antolatu du



Gurasoen Euskara Batzordearen aurreneko ekimena da txangoa.

Haur eta gurasoak Bernoako galtzada hilaren 25ean, larunbatean, 15:30ean ezagutuko dute, Urrizitik abiatuta

Urdiaingo Gurasoen Euskara Batzordea herriko haurren artean gero eta gaztelania gehiago entzuten zelako sortu zen. Kezka hori ere bazuen udalak eta Iñaki Eizmendiren aholkularitzarekin haurren euskararen erabilera handitzeko kanpaina antolatu dute. Horretarako neurrietako bat gurasoek txikienekin txangoak egitea da. Ibilaldi horiek euskara erabiltzeko gune gisa hartu nahi dituzte, euskararendako arnaguneak.

Txangoan 6 eta 12 urte arteko neska-mutikoei parte hartuko dute, haien gurasoekin batera. Azken horiek, ezinbestean, euskaldunak izan behar dute eta txangoan zehar haien artean euskaraz hitz egin beharko dute. Urdiaingo euskalkia erreferentea izanen da. Aurreneko txangoan Ion Zufiaurrekin Bernoaren galtzada eta haren inguruko pasarteak ezagutuko dituzte.

Izen ematea

Liburutegian hilaren 24ra arte, ostirala.

CONSTRUCCIONES ALZATE S.L.

ALZATE ERAIKUNTZAK S.L.

Zubetia 21, Altsasu
Tel. 948 562 745 · Fax 948 467 600
www.construccionosalzate.com

FINALAURREKOAK

BERA
Kultur Etxea - Martxoak 18, 17:30

ANTSOAIN
Antzokia - Martxoak 19, 17:30

AGOITZ
Kultur Etxea - Martxoak 26, 17:30

Nafarroako Bertsolari Txapelketa 2017

www.berzozale.eus

GUAI XE Fundazioa

SAKANA / Lakuntza

Herri eskolen festako egitaraua eta koreografia aurkeztu dituzte

Lakuntzako Luis Fuentes eskolako hezkuntza komunitate guztiak bat egin du zazpigarren Sakana herri eskolekin Sortzen festa antolatzen. Hazi eta hezi, euskaraz bizi leloa du festak. Ospakizuna apirilaren 1ean izanen da eta eguerditik iluntzera arte egitarau zabala prestatu dute. Horren barruan dago flash mob baten grabazioa. Haren doinua Lakuntzako eskolako gurasoek joan den urtean prestatutako kantua izanen da. Koreografia, berriz, eskolako ikasleek sortu dute eta Sakanako beste eskoletakoei helarazi diete.

Herri bazkaria ere izanen da. Hartan izena eman nahi duenak astelehenera arteko epea du. Hurrendako (4 euro) eta helduenda-



Eskolako 116 ikasleak eta 75 familien ordezkarietako batzuk festa iragartzen.

ko (8 euro) menuak izanen dira. Bai batean bai bestean halal haragiarekin prestatutako menua

eskatu daiteke, beti ere, hori zehaztuz. Izena emateko Debora Luisekin harremanetan jarri edo

Egitaraua

- >> 11:00etan Birziklatze tailerrak, ibarreko eskolako bana.
- >> 12:00etan Harrera
- >> 12:30ean Buruhandiak eta erraldoiak.
- >> 13:00etan Postreen eta Jokin Alegriak egunean margotutako koadroaren zozketak.
- >> 13:30ean Flash-mobaren grabazioa.
- >> 14:00etan Danborrada, plazatik frontoira, birziklatze tailerreko danborrekin.
- >> 14:30ean Herri bazkaria.
- >> 15:00etik 17:00etara Puzgarriak.
- >> 17:00etan Eskolen ikuskizuna
- >> 18:00etan Txokolate-jana
- >> 18:00etan Dantzaldia Xaiborrekin.
- >> 19:30ean Zezensuzkoa.

Lakuntzako eskolako guraso elkarteak Laboral Kutxan duen kontu korrontean ordainketa egin izen-abizenak, kopurua eta aukera zehaztuz.

>> Urdiain

Udalak batzarra deitu du

Larunbatean, 11:00etan, herriaren etxeko auzoan

Urdiaingo Udalak urdindarrei hainbat gairen inguruko informazioa eman nahi die batzarrean: joan den urteko kontuak, aurtengo aurrekontuak eta heldu den urteetarako dituen egitasmoak. Horiak azaldu eta gero Urdiaingo Udaleko kideek galde-eskaeren txanda zabalduko dute, urdindarrek hitza har dezaten.

>> Arakil

Udalak gazte-jardueretarako diru-laguntza deialdia egin du

Arakilgo Udalak jakinarazi du gazteek euren diru-laguntza deialdia egin duela. 14 eta 30 urte bitarteko gazte arakildarrek aurkeztu ditzakete euren eskaerak. Udaletik azaldu dutenez, diruz lagunduko dituzten jarduerak kultura, ingurumena, gizartea edo kirol jarduerak izanen dira. Eta baldintza da aurtengatik egin behar direla. Interesa dutenek euren proposamenak apirilaren 30era arte aurkeztu dezakete Arakilgo udaletxean. Han edo www.arakil.net web orrian daude deialdiaren oinarriak.

>> Altsasu

Udalak zortzi langabetu kontratatuko ditu

Altsasuko Udalak jakinarazi duenez, Lanen Lantaldea indartzeko zortzi langabe kontratatuko ditu. Honako lanpostuak bete nahi ditu udalak zehazki: bi kisu-gile ofizial eta zurgin, pintura eta mendi ofizial bana eta hiru peoi. Zortzi kontratuak sei hilabeterako izanen dira, lanaldi osoan. Interesa dutenek Altsasuko enplegu bulegoan eman behar dute izena astearteko 14:00ak baino lehen. Izena ematen dutenek proba teorikoak eta praktikoak pasa beharko dituzte eta horren arabera aukeratuko ditu udalak aldi batez bere langileak izanen diren pertsonak.

SAKANA

Fakturak nola egin ikasteko

Cederna-Garalurrek, Nafar Lansarerekin batera ekintzaile eta autonomoei zuzendutako ikastaroa antolatuko du: nola diseinatu fakturak zerga-betebeharrak betetzeko. Ikastaroa apirilaren 10ean izanen da, astelehenean, 10:00etatik 12:30era. Saioa Arbizuko industrialdean dagoen Utzaganen, Sakanako Garapen Gunean izanen da. Informazioa jaso edota izena emateko: 948 567 010 edo sakana.admon@cederna.es.

>> Uharte Arakil / Lakuntza / Lakuntza / Arbizu / Altsasu

Haur eskolen finantziatorako 154.896,67 euro

Nafarroako Gobernuak udalen haur eskolak finantzatzeko 6,1 milioi euro bideratzea erabaki du gaurko bileran. Izan ere, haur eskolen finantzazioa foru administrazioaren, udalen eta gurasoen artean egiten da, bakoitzak heren bat pagatuz. Nafarroako 78 haur hezkuntzako lehen zikloko zentro-

en artean banatuko da diru-laguntza eta hartatik Sakanako hiru haur eskoletara 154.896,67 euro iritsiko dira.

Herria	Ekarpena
Uharte Arakil	36.362,73
Arbizu-Lakuntza	88.360,56
Altsasu	30.173,38



Uharte Arakilgo pausoka haur eskolako umeak. UTZITAKOIA

SAKANA

Berdintasun politiketarako udalen elkarlana aztertzen

Berdintasunerako Nafarroako Institutuak eta Nafarroako Udalen eta Kontzejuen Federazioak antolatuta, gizonezkoen eta emakumezkoen berdintasun eraginkorra lortze aldera udalen elkarlana nola sustatu aztertu zen atzo. Toki erakunde- eta 80 teknikari eta politikari elkar-tu ziren jardunaldian. Haren helburua berdintasunaren alde udalen arteko lan eta elkarlan sare bat sortzea da. Euskal Autonomia Erkidegoko esperientziaren berri jaso zuten lehenik. Ondoren, Altsasuko Udaleko berdintasun teknikari Idoia Goikoetxeak arlo horretan azken 25 urteetan egindako lanaren azterketa egin zuen. Berdintasun gehiagoko gizarte bat egiteko, udal politikak botere eraldatzailea dutela nabarmendu zuen Goikoetxeak. Udal ordezkariak, parte-hartze tailerren bidez, tokiko-politiketara berdintasun printzipioa ezartzeko duten beharra eta proposamenak egin zituzten. Antolatzailek Berdintasunaren Aldeko Toki Erakundearen Sarea sortzeko lanean segituko dutela jakinarazi zuten.

>> Etxarri Aranatz

Egi aldarrikapena Josu Zabala Salegiren kasuan



Zabalaren senide eta lagunek aurkeztu zuten ekimena.

Haren heriotzaren inguruko egia aldarrikatuko dute 20. urteurrenean, hilaren 25ean, 20:00etan, eginen den manifestazio batean

Josu'20, egia jakin nahi dugu ekimenak "etxarriarrek egia jakin nahi dugula erakutsi" nahi du mar-

txoaren 25eko mobilizazioarekin. Hurrengo egunean 20 urte beteko dira Josu Zabala Salegi ETako kidea hilik agertu zela. Ekimeneko kideek manifestazioarekin egia aldarrikatzeaz aparte, adierazpen publiko baten bidez "gatazkaren konponbi-

dean ardura duten eragile guztiak interpelatu" nahi dituzte. Aurreratu dutenez, Josuren familia, lagun eta etxarriarrei babesa emateko, ekitaldian Egiari Zor fundazioako kide den Ane Muguruza eta egia ezagutzeko ere borrokan ari den beste familia bateko ordezkari bat izanen direla aurreratu dute.

Ekimeneko kideek manifestazioa larunbatean aurkeztu zuten eta adierazi zuten, "egia jakitea, eskubidea izateaz aparte, ezinbestekoa da etorkizunerako. Egia ez jakiteak Josuren familia, lagun eta herrikideen mina biderkatzen du". Gaineratu zuten, "egia ezinbestekoa da aitortzan, erreparazioan eta ez errepikatze bermean oinarritu behar den bakea eraikitze-ko. Egia ezinbestekoa da horrelako gertakaririk errepikatuko ez dela bermatzeko".

Korrika

Zabala AEK-ko irakaslea izan zen. Korrikaren 10. edizioaren akabera festa Bilbon egin zen eta han desagertu zen. Hori guztia gogoan, ekimenak aurtengo Korrikako km bat erosi du.

» Irurtzun

Gizonezkoa tratu txarreatatik atxilotuta

Foruzaingoak jakinarazi duenez, emazteari ustez tratu txarreak emateagatik 54 urteko gizon irurtzundarra atxilotu du. Emakumeak 112 telefonora hots egin zuen eta polizia joatea eskatu zuen. Emakumeak Altsasuko polizia etxeko agentei jakinarazi zenez, urtetan tratu txar psikiko eta fisikoak sufritu izan ditu. Poliziek ikusi zuten emakumeak aurpegian, eskumuturrean eta ezker besaurrean ubeldurak zituela. Gizona atxilotu eta Iruñera eraman eta han atestatuko diligentiarekin segitu zuten. Foruzaingoak jakinarazi duenez, gizonak tratu txarren egile gisa aurrekariak ditu.

112

Tratu txarrek salatzen diren telefonoa.

» Altsasu

Rendorendako Nafarroako urteko ONCE saltzaile onenaren saria

ONCE erakundeak, 10. urtez, bere jokoak saltzen dituzten langileen ahalegina aitortzeko Urteko Saltzaile Onenak 2016 Sariak banatu ditu berriki. 17 erkidegoetako eta 5 eskualde zuzendaritzetako 22 saltzaile euren ahalegina aitortu zien ONCEk. Erakundeak 2016ko Nafarroako saltzaile onenaren saria Victorio Rendo Palles saltzailearen eskuratu du. Saritutakoak aukeratzeko ONCEk talentua, sinpatia, elkartzasuna, ilusioa, buru-azkartasuna, hurbiltasuna eta konpromisoa balioak eta egiten duten lana bera kontuan izan ditu. Madrilen egindako gala-afari batean jaso zituzten sariak. Guztiek ere asteburua elkarrekin pasatzeko aukera izan zuten, elkarrekin hainbat jarduerak eginez.

» Altsasu

LABek ere plantillaren hizkuntza eskakizunen aldaketari helegitea aurkeztu dio

Sindikatu abertzaleak jakinarazi duenez, Altsasuko udalak lanen lantaldeko lanpostuetako hizkuntza eskakizunen aldaketari helegitea aurkeztu dio. LABeko kideen iritziz, "hizkuntza eskakizunak murrizteko hartu den erabakiak altsasuarren hizkuntza eskubideen aurkako eraso da. Ondorioz, ezin izanen da bermatu udaleko langileek herritarrekin euskaraz komunikatu ahal izatea". Sindikatuko ustez, "erabakiak diskri-

» SAKANA

Emakumeen kontrako indarkeriak hor segitzen du

Nafarroako Berdintasunerako Institutuak jakinarazi digunez, emakumeen kontrako indarkeriagatik 1.199 polizia-salaketa izan ziren Nafarroan joan den urtean, hilabete 100. Haietako, 56 (%5) Sakana barne hartzen duen ipar-mendebaldeko eskualdean izan ziren. Bestetik, Foruzaingoak jakinarazi du sexu askatasunaren kontrako lau delituen salaketa bideratu zituztela joan den urtea Altsasuko polizia etxearen bidez (Lekunberri eta Leitzaldea ere hartzen ditu). Haietako bat erasoagatik izan zen eta beste hiru abusuengatik. Haietako

bi Arakil eta Altsasun izan zirela ere zehaztu du.

Emakumezkoen jaiolakua		
Estatua	773	%64,5
Estatutik kanpo	426	%35,5

Gizonezkoen jaiolakua		
Estatua	706	%59
Estatutik kanpo	492	%41

Erlazio mota		
Bikotea	492	%41
Bikote ohia	470	%39
Senidea	120	%10
Erlaziorik gabekoa	86	%7
Bestelakoak	26	%2
Ez du erantzuten	5	%1

» Altsasuko polizia etxeak 277 delitu salaketa egin zituen 2016an



Altsasuko polizia etxea. ARTXIBOIA

Foruzaingoak Altsasuko polizia etxearen eremua Sakanaz aparte, Larraun, Lekunberri, Arantzeta eta Leitzaldea da. Foru poliziak jakinarazi duenez, joan den urtean 277 delitu salaketa bideratu zituen, 2015ean baino sei gutxiago. Eskualde horretan egiten ziren salaketen ia bi herenak, %62,09, Foruzaingoak bideratu zituen. Beste heren bat, %31,41, Guardia Civilak bideratu zuen. Gainontzeko salaketak beste poli-

ziek %2,89, Policia Nacionalak %2,53 eta Udaltzaingok %1,08.

Delitua	2015	2016
Hilketa	1	0
Hormizidioa	0	1
Lesioak	35	30
Sexu eraso	1	1
Sexu abusua	0	3
Lapurreta indarkeriaz	8	6
Lapurreta indarrez	119	116
Lapurreta etxeetan	25	28
Ebasketa	6	3
Lapurreta autoan	88	89
Guztira	283	277

ordenantzaren kontra egiten duela: "euskaraz pairatu duen jazarpena onartzen du, euskarari lehentasunezko tratamendua emanez". Sindikatuko kideen iritziz, "Geroa Baik, PSNren babesarekin eta Goazen Altsasuko isiltasunarekin, euskararen eta hizkuntza eskubideen aurkako erabaki bat hartu du, langileok euskaraz lan egiteko dugun eskubideen aurka eta Altsasuarrek zerbitzu publikoak euskaraz jasotzeko duten eskubidearen aurka". LABekin batera, EH Bildu, Hizkuntza Eskubideen Behatokiak eta EHEK aurkeztu dizkiote alegazioak udalaren erabakiari.



Emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako kontzentrazioa Irurtzunen.

» Indarkeria motak

Fisikoa eta psikologikoa	647	%54
Psikologikoa	165	%14
Babes agindua haustea	186	%15
Sexu-indarkeria	145	%12
Mehatuak, koakzioak...	56	%5

» Eskubideek adinik ez dutelako



Pentsionistak Martxan-eko kideak parlamentuko eztabaidari adi. UTZITAKOIA

» Gaur, 12:00etan, Altsasuko Zumalakarregi plazan

Nafarroako Pentsionistak Martxan taldeak kontzentrazioa egitera deitu du gaur. "Gure eskubideak adinarekin batera ez dira iraungitzen", diote. Horregatik, Nafarroako Pentsionistak Martxan-eko kideek pentsio duinak eta osasun eta zaintza arloko zerbitzu egokiak eskatuko dituzte. Gainera, atzo Nafarroako Parlamentuan gertatutakoaren berri emanen dute.

Izan ere, Nafarroako Pentsionistak Martxanek sinadurak bildu zituen (5.148) legegintzako herri-eki-

mena Nafarroako Parlamentura eramateko. Pentsioetarako osagarri bat ezartzea nahi zuten, Nafarroan gutxieneko pentsioak 1.080 euroaraino igotzeko. Foru Legearen proposamena atzo defendatu zuten parlamentuan, baina ez zuen aurrera egin. UPN, Geroa Bai, PSN, PPN eta I-Ek proposamenaren kontrako botoa eman zuten, eta EH Bildu eta Podemos-Ahal Dugukaldea. Gehiengoak zioen Nafarroan gutxieneko pentsioak hilean 1.080 euroaraino igotzeko finantza-mekanismoak ez dagoela. Ekimenaren sustatzaileak, jakina, ez daude ados.

www.pescaderiamariaeugenia.com
Arratsalde zabalik



Lortu deskontuak gure txartelarekin!



Unai: 607 804 316 / Olaia: 678 564 722
El Ferial, 1 • 948 467 950 / Isidoro Melero • 948 467 725

» Altsasu

Zarata, laugarren preso-hilabetea salatzen

Tamaina guztietako lapikoak, karrakak, zartaiak, maskoten jan ontziak, azpilak, kazoak... denek balio izan zuten zarata ateratzeko. *Altsasukoak aske. Polizia muntaiarik ez!* lelopean 600 bat pertsonak zarata eginez Altsasu zeharkatu zuten. Ferietako liskarragatik asteartean lau hilabete egin zituzten kartzelan Jokinek, Adurrek eta Oihanek; Soto del Realen, Altsasutik 400 km-tara urrunduta.

Herri-asanbladatik azaldu zutenenez, hiru altsasuarrak “kartzela erakunde-mendekua adierazpen goren gisa bizitzen” ari dira, “bai haiek bai euren ingurua ere, eredu zigorra jasoko duten pagaburuak sortuz”. Hiru espetxera-

tuak FIES 3 (Fichero de Internos de Especial Seguimiento) gisa sailkatuak daudela gogorarazi zuten; “terrorismo eta erakunde armatuko kide kasuetan aplikatzen dena”.

Horren ondorioz hiru altsasuarrak espetxeratuengan Espetxe Erakundeak “kontrol zorrotza” ezarri duela azaldu zuten, “haien komunikazioak interbenituta daude (eskutitza guztiak fotokopiatuta, telefono elkarrizketak grabatuak, mintza-tokikoak...) haien oinarriko intimitatea hautsiz”. Salatu zuten, “bidean galdu eta inoiz iritsi ez diren eskutitzak” daude. Baita, “izapide akatsak direla eta baimendu gabeko deiak, bisean bisez sartzean bai fami-



Hilabeteko 14. egunetan mobilizazioak egin dira, auzipetuen egoera gogorarazi eta salatzen.

liei baita haiei beraiei egindako miaketak, denbora bukatu aurretik eta abisatu gabe mintza-tokirik eginiko mozketak... Aldian behin espetxe barruan moduluz aldatzen zituzten, astelehenean bigarrenez. Adurren kasuan amaren bisita hiru hilabetetan ezin

du jaso eta orain arte bisitatu duen bikotekideak ere ez, adin txikikoa omen delako.

Asteartean manifestazioaren hasieran azaldu zuten, espetxe erakundearen jokabide horrek “horrek guztiak haien” pertsona, kemena eta duintasuna honda-

tea” du helburu. Epaiketaren zain dauden beste auzipetuak ere gogoan izan zituzten: “presiopean eta kartzelaren mehatxu etengabe bizi dira, erdizkako askatasunean, haien bizitzak etengabe oztokatzen dituzten baldintzekin”.

» SAKANA

Asteazkenerako greba deitu dute ikastetxeetan

ELAK, LABek eta STEILAS sindikatuek eta SAKANAKO ikasle Abertzaleak taldeak martxoaren 22rako greba deitu dute ikastetxeetan, Lan baldintzak hobetu, hezkuntza eraiki! lelopean.

ELA, LAB eta STEILAS sindikatuek igorritako manifestuan, Euskal Herriko Eskubide Sozialen Karta dute hizpide. Bertan, besteak beste, ondokoa jasotzen da: “persona guztiek dute hezkuntza publiko, euskaldun, plural, laiko eta doakoa eskuratzeko eskubidea, aniztasuna integratuko duena eta berdintza izango dena generoaren ikuspuntutik (hezkidetzan), ikuspegi kritiko eta elkartasun internazionalista sustatuko dituena, hezkuntzaren etapa guztietan...”. Aipatu sindikatu esanetan, “Iruñea eta Gasteizko gobernuak azken urteotan ezarritako murrizketek, hezkuntza inbertsio erabat eskasek eta inposaturiko hezkuntza erreforma basatiak guztiz kontrako norantzan kokatu gaituzte”.

Eskatzen dena

Azken urteetako murrizketen ondorioei aurre egiteko hainbat neurri exijitzen dizkiete gobernuari. Besteak beste, Nafarroan hezkuntza publikoko plantilak gutxienez 900 langiletan igotzea, Nafarroan 1.800 lanpostutik gora egonkortzea, gelako ikasle kopurua %10 murriztea, hezkuntzako langileen eroste ahalmena berreskuratzea, ordezkapenak lehen egunetik egitea, bajak bere osotasunean ordaintzea eta erretiroa erraztu eta laguntzeko neurriak berreskuratzea.

Gainera, LOMCE ikastetxeetatik ateratzea exijitzen da. “Ezinbestekoa deritzogu, gure hezkuntza sistema txikitu, erabat mugatu eta desarautu baitu”. Egungo egoera “guztiz onartezina” eginen zaie eta horregatik, sindikatuok, gainerako hezkuntza eta gizarte eragileekin elkarlanean, martxoaren 22an greba deitu dute unibertsitatez kanpo hezkuntza publikoan.

»

Askapenak brigada internazionalisten eskaintza berria egin du

Askapena erakunde internazionalistak “azken urteotako dinamizazioarekin jarraituz” antolatu du aurtengo brigada kanpaina. Alde batetik, “Abya Yalako prozesuen jarraipena” egingen dute, “bizi duten egoera ezegonkorrari aurre egin” eta Argentina-Uruguai, Bolivia, Brasil, Mexiko eta Venezuelan dauden erresistentzia esperimentuak ezagutzeko aukera izanen da brigaden bidez. Kontinente berean, aurtun, Kubarako brigada ere izanen da.

Europako brigaden eskaintzan Herrialde Katalanetakoari Britainia-ZAD eta Italiako brigadak gehitu zaizkie; “Kapitalaren Europar herri zapalduetatik sortzen diren alternatibak ezagutarazteko”. Azkenik, Askapenak Palestinarako brigada ere antolatu du; “sionismo gabeko Euskal Herria sortze bidean palestinar erresistentzia ezagutu eta Euskal



Askapenakoak brigaden berri emateko hitzaldiak egingen dituzte. ARTXIBOA

Herrian Boikot, Desinbertsio eta Zigor kanpaina zabaltzeko”.

30 urte

Urteurren hori betetzen ditu Askapenak aurtun, “1987an Iraultza Sandinistaren epeletan sorturiko euskal erakunde internazionalista da. Herrion arteko joan-etorriko elkartasuna bultzatzen dugu, Euskal Herria eta gainerako herri langile eta zapal-

duekin zubiak eraikiz”. Brigadak “munduko prozesu emantzipatzaile desberdinak ezagutu eta gerora Euskal Herrian ezagutzera emateko” antolatu dituzte. Askapenatik dei egin diete “Euskal Herriko internazionalista guztiei dei eginen diegu gurekin batera brigadetan parte hartu eta Euskal Herriko borroka gaitzetzeko herrietako borrokekin uztartzeko”.

guaixe.iragarkilaburrak.com

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Webgunean: guaixe.iragarkilaburrak.com-en **doan**. Guaixe astekarian: Saldutxo/erosi, erretan eman/hartu, lan eskaintzak 8 euro / 3 aste. Telefonoa: 948-56 42 75 Posta elektronikoa: iragarki@guaixe.eus

LANA | NEGOZIOAK

LAN ESKAINTZAK

Uharte Arakilen Garbiñe Azurmendiren botikarako farmazialari bat behar da jornada osorako. Kontratu mugagabea. Interesatuak deitu telefono honetara 675 551 510.

Etxarri Aranazko Udalak garbitzaile lanetan behin behineko tasuneari aritzeko zerrenda sortu behar du, beharren arabera, etorkizunean kontratazioak egiteko. Izena emateko epea 2017ko martxoaren 17an 14:00etan. Deialdiaren oinarriak kontsultatzeko: udal web orrian

etxarriaranaz.eus, udal bulegoan eta Altsasuko Nafarroako Enplegu Zerbitzuan.

OHARRAK

Olaztikotako irakurle taldea. Martxoaren 17an, ostiralean, 21:00etan Olaztikotako liburategian elkartuko da eta Christopher Morley-ren “La librería ambulante” liburua hizketatuko dira.

Odol-emaileak. Marsua: Irurtzunen, 21ean, 16:45-20:30. Etxarrin, 22an, 17:00-20:30. Etxarrin, 29an, 17:00-

20:30. Apirilbila: Olaztin, 25ean, 17:00-20:30

Konpasio mojen 2. mendeurren ospakizuna.

Mojen Altsasuko ikastetxean izan zirenen topaketa antolatu dute apirilaren 8rako Altsasun. Bazkarira joan nahi dutenek M^o Carmen Goikoetxeak eta Juli Alvarezek Laboral Kutxan zabalduko kontu korrantean 30€ sartu beharko dituzte, izen-abizenak adieraziz. Argazki erakusketarako materiala utzi nahi dutenek edo ospakizunaz gehiago jakin nahi dutenek golan@telefonica.net edo iturritxo90@gmail.com e-postetara idatzi edo 679 103 032 telefonora hots egin dezakete.

Helduen Nafarroako Euskal kantu Jaialdia.

Udazkenean izanen da. Izena eman nahi duenak nafarroakoekuskalkantu@gmail.com edo amadominguez@tafallaika.org e-postara diatzi dezake, helduen jaialdirako dela adieraziz.

JAIOTZAK

• **Oier Lazcoz Martiarena,** martxoaren 6an Egiarretan.

HERIOTZAK

• **Antonia Aristorena Navarro,** martxoaren 4an Lizarragan.
• **Josefa Hernandez Otorra,** martxoaren 11n Altsasun.
• **Teresa Larraza Etxarri,** martxoaren 12an Olaztin.
• **Maria Miranda Razkin,** martxoaren 14an Lakuntzan.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da. Agertu nahi ez duenak, han jakinarazi dezala.

Eskela



Martin Barandiaran Agirrebengoa

Muxu bat, osaba.

Amillano senideak

Eskertzak eta eskelak osteguneko goizeko 11:00ak arte jasotzen ditugu. Euskara hutsean argitaratuko dira.

Bidali mezua eskelak@guaixe.eus-era edo hots egin 948 564 275 telefonora

» Irurtzun

Udal aurrekontuko 35.000 euro zertara bideratu erabakitze bederatzi egun

Bihartik hilaren 26ra lau proiekturen artean aukeratu eta haiei botoa emateko aukera izanen dute irurtzundarrek. Boto kutzak hemen egonen dira: Tahona, M^a Jesus elikadura, Lorena fruta-denda, Erosle, udaletxea, liburategia, jubilatuen elkarte eta Pikuxar. Gainera, preparirurtzun@gmail.com e-posta helbidea erabil liteke

Irurtzundarrek euren botoekin udal aurrekontuaren 35.000 euroko diru-sail bat zertara bideratuko den erabakiko dute. Zazpigarren

urtea da parte-hartze aurrekontu-dinamika martxan jarri dena. Lau proiekturen artean aukeratu beharko dute irurtzundarrek. Etxe guztietara informazio esku-orriak eta boto paperak banatu dituzte. Herritarrek, botoa ematearekin batera, Irurtzun hobetzeko proposamenak ere idatzi ditzakete. Hala jakin eta inbertsio txikia eskatzen duten makina bat lan egin izan ditu ondoren udalak. Bestela, hurren-

go parte-hartze aurrekontuetan sar litezke. Hori bai, proposamenak bideragarriak izatea eta ahalik eta zehatzen azaltzea eskatzen dute.

Prozedura

Hilaren 26an boto-kutzak jasotze-arekin batera bukatuko da parte-hartze aurrekontuaren prozesua. Bost hilabeteko lana despedituko da horrela. 2016an eta aurreko urteetan jasotako proposamen eta

iradokizunekin aurre-aukeraketa egin zuen taldeak eta hala nahi izan zuten Irurtzunge giza-talde desberdinek. Azaroan izan zen hori.

Ondoren, auzokide tailerrak egin zituzten eta egitasmoen berri emanzieten irurtzundarrei. Herriko kolektiboren batek proiekturen bat aurkeztu bazuen auzokide-tailerretan hura azaltzeko aukera izan zuen. Horrek irurtzundarrak aukeraketa prozesuan aktiboago parte hartzea ekarri du. 263 irurtzundarrek parte hartu dute auzokide-tailerretan. Eta berme horrekin aukeratu dira irurtzundarrek bozkatu dituzten lau aukerak. Haiek

azalduz etxe guztietara esku-orriak eta boto paperak banatu dituzte. Bozkatzea besterik ez da falta.

2018ra begira taldetik deia egin diete Irurtzunge talde eta kolektiboei: "auzokide-tailerretan euren ideiak aurkeztera animatu nahi ditugu; izan ere, horrela, herritarrek askoz zuzenago parte hartzen dute aukeratzeko prozesuan". Taldeetik aurreratu dutenez, hurrengo edizioetan auzokide-tailerretara eramandako proposamenetik bi zuzenean aukeragarriak izatera pasako direla, hau da, irurtzundarren botorako aukeren zerrendan agertuko direla.

Lau proiektu aukeran

PLAZAKO ZORUA ETA HARMAILAK KONPONTZEA



Udaletxeko plazan hainbat lan egitea proposatzen da, honakoa: gauzatu litzateke eta, batez ere, honako hau izango litzateke: Lizarra kaleko eta frontoia-aren atzeko aldeko parkeko sarretan dauden baldosa "arantzadunak" aldatu, harmailak garbitu eta konpondu eta zoruaren aldaketa egin, batez ere okerren eta hondatuen dauden zatietan.

IGERILEKUETAKO BERDEGUNEAK BERRITU



Igerilekuetako hainbat gunetan belardia prestatu eta berriro ere, hainbat makal moztu, merenderoaren ingurua hobetu eta barbako ingurua berri-tu.

GIMNASIOA



Kiroldegiko gela bat egokitzea litzateke egitekoa, gero gimnasio gisa erabili ahal izateko. Horretarako, igeltserotza, zurgintza, beirak, zoruak, pintura, klimatizazioa... Ekipatu gabeko gela bat geldituko litzateke, etorkizunean gimnasio bihurtzeko.

JUBILATUEN ELKARTEKO LEIHOAK ALDATZEA



Jubilatuaren elkartearen leihoak deformatuta daude eta ez dira egoki ixten eta iparraldeko babesik gabeko dago pertsianarik gabe, bere garaian hondatuta zeudelako eta erortzeko arriskuagatik kendu ziren. Leiho aldaketarekin elkartearen kalitatea hobetuko litzateke, tenperatura egokia mantenduz, neguan zein udan, ahalik eta kalefakzio gastu txikiena sortuz.

Aurrekontua

Aitor Carrera Larraza alkatea jakinarazi digunez, udaleko gainontzeko taldeei atzo eman zieten aurrekontuaren zirriborroa. Haren asmoa litzateke udal bilkurak apirilean aztertzea.

Orain arte aukeratutako proiektuak

2011 Ibai aldea eta Biaizpe ingurua aisi aldirako berreskuratzea.
2012 Espaloiak eta seinaleak errespetarazteko lanak.
2013 Igerilekuetan hobekuntza lanak.
2014 Eskola publikoko aldage-lak konpontzea.
2015 Karpa erostea.
2016 Osasun etxeko ambulanzien sarbidea hobetu.

» Altsasu

Udaberriko Aisiz blai programan izena emate epea



Haurrak ludotekan. ARTXIBOA

Asteleheneetik ostiralera izanen da izen ematea, doako 012 telefonora hots eginez edo udalaren web orrian sartuz, www.altsasu.net

Txantxari udal ludoteka Aste Santuari begira jarri da dagoeneko. Ikasleek oporrak hartu eta lana eta familia bizitza bateragarri egitea zailagiten da etxe batzuetan. Horregatik, udal zerbitzuak Aisiaz blai programa prestatu du Aste Santurako, apirilaren 18, 19, 20 eta 21erako hain zuzen ere. Klaserik ez dagoen egun horietan Labadero eraikinean dagoen Txantxari ludotekak ateak zabalduko ditu 3 eta 12 urte artekoendako (2005 eta 2014 artean jaiotakoak). Goizez izanen da eta bi ordutegi eskaini ditu: 8:30etik

13:30era edo 11:00etatik 13:30era. Lehen ordutegia beteko ez balitz bigarrena sortuko litzateke. Ludotekatik jakinarazi dutenez, plazak mugatuak dira.

Hobariak

Matrikulan pagatu beharreko familien diru sarreraren arabera izanen da. Udalak lau errenta tarte zehaztu ditu, baita hobariak ere. Martxoaren 28an jakinaraziko du udalak zein eskaera onartu dituen. Onartutakoren batek hobaria eskatu nahi badu, errenta aitoren aurkeztu beharko du ludotekan edo udaleko bulegoetan, martxoaren 28tik apirilaren 4ra.

» Sakana / Arakil

Donostian Sakanaren turismo eskaintzaren berri ematen



Sakanaren berri Fitur azokan eman zuten. ARTXIBOA

Donostiako turismo feria, Sevatur, eginen da gaurtik igandera. Nafarroak bere stand izanen du eta han tokia izanen du ibarrak. Alde batetik, Bidelagun turismo elkarte izanen da eta, bestetik, Plazaola turismo partzuergoa. Donostia, Gipuzkoa eta gainontzeko tokietako publikoari Sakanako turismo eskaintza ezagutaraziko diote biek.

Arakilgo Udala kide den Plazaola turismo partzuergoak Donos-

tian sustapen material berria aurkeztuko du. Alde batetik, telefono mugikorretarako eta tabletetarako aplikazioa edo Plazaola app. Bisitariak eta Plazaolaren eremuan bizi direnek baliatu dezakete app-a. Han baliabide, erakargarri, alogamendu, jatetxe, zerbitzu eta bestelako berri jasoko dituzte. Horrekin batera, aplikazioak geolokalizazio sistema, albisteak, agenda eta beste dituzte. Plazaola hitza

jarrita ohiko tokietatik deskargatu daiteke aplikazioa.

Bestetik, Plazaola turismo partzuergoak, Nafarroako Gobernuaren laguntzaz, bere bazkide diren udalen inguruko esku-orri ilustratuak aurkeztuko ditu. Horien artean Arakilgoa. Fiturren aurkeztutako Plazaolako mapa ilustratuaren osagarri izanen dira material horiek. Aurki Plazaolako gida ilustratua aurkeztuko dute.

40 tanatorios

IRACHE

aniversario

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

948 19 70 70

@Grupolrache

Grupolrache

www.tanatoriosirache.es



Esther Irisarri Garasa

X. urteurrena

10 urte pasa dira, baina gure bihotzetan zaitugu lagun. Zurekin bizitako une goxoak betirako, Esther.

Zure koadrila



Xabino Garmendia Iriarte

II. urteurrena

Goizian argi hastian ene leiho hegian xori bat pausatzen da eta goratik hasten kantan.

Zu familiye



Garazi Garasa Guerrero

VI. urteurrena

Beti gure bihotzean biziko zara.

**Zure
aiton-amonak**

Felix Usabiaga Etxeberria

(Inocencia Floresen alarguna)

Gu sortu ginen enbor beretik sortuko dira besteak.

Zure ilobak



Francisco Javier Lazkoz Flores

VI. urteurrena

Gure artean zaude.

Etxekoak

Lakuntza



Teresa Larraza Etxarri

(Victoriano Apeztegia San Romanen alarguna)

Inoiz ez gaituzte behartuko nahi ez duguna pentsatzera. Zuek pentsatzen, sentitzen, maitatzen duzuen bitartean, ni libre izanen naiz.

Etxekoak eta zuen bihotzeko biloba Mikel

Olaztin, 2017ko martxoaren 13an



Garazi Garasa Guerrero

VI. urteurrena

Nire begiak itxi, zure irrifarra une batez ikusteak nire arima baretzen du.

Felipe, Trini eta Asier



Garazi Garasa Guerrero

VI. urteurrena

Ez naute zure argiak eta zure maitasunak abandonatzen, beti hemen zaude, maitia.

Manoli, Joseba eta M^a Josefa



Juan Unzilla

Baso galduan behe lainoa gizon indartsu atsedean bila. Irrifar goxoa ezpainenetan perlaren dizdira amestuz doa.

Zure etxekuek

Etxarri Aranatzen, martxoaren 10ean

Naiara Goikoetxea Arteta eta Garazi Garasa Guerrero

VI. urteurrena

Gure arteko loturak muga guztien gainetik irauten du ez baita galtzen norberaren berezkoa dena.

Zuek emandako goxotasuna eta maitasuna altxorrik ederrenak dira betiko.

Maite zaituztegu

Etxekoak




Naiara Goikoetxea Arteta

VI. urteurrena

Zure maitasunaren soinuek dantza egiten dute nire bihotzean
Zure irrifar goxoak neguaren hotza uxatzen du
Zure izaeraren edertasuna nire arimaren portua da
nire bihotzeko kuttuna

Maite zaitut



Naiara Goikoetxea Arteta

VI. urteurrena

Egunero nirekin zaude

Osaba Rafa.



Eskertzak eta eskelak osteguneko goizeko 11:00ak arte jasotzen ditugu.

Bidali mezua eskelak@guaixe.eus-era edo hots egin 948 564 275 telefonora

GRAVNI: GRAVNI pilota txapelketako lehen jardunaldian Gipuzkoak Nafarroari irabazi zion. Larunbatean jokatuako 21 partidetatik 11 irabazi zituzten gipuzkoarrek eta

trinketean 9 partida irabazi zituzten gipuzkoarrek eta 5 nafarrek. Asteburuan Nafarroak Araba izango du aurkari.

Igeriketa



Iker Irigoien dominarekin

Euskal Herriko Igeriketa Txapelketatik brontzezko domina ekarri du sakandarrak 100 m estiloetan

Irungo Azken Portu igerilekuan Euskal Herriko Igeriketa Txapelketak jokatu dira berriki. Sakana Igeriketa Taldeko Iker Irigoien Claverrek lan bikaina egin zuen. Domina ekarri zuen etxera, 100 m estiloetan hirugarrena sailkatu baitzen (1:05:39). Horretaz gain, 200 m bular estiloan bosgarrena sailkatu zen Iker Irigoien (2:49:49) eta 200 m tximeletan seigarrena izan zen (2:31:76).

Pilota

Zilarrezkoa: aukerarik gabe daude Errandonea eta Martija

Zilarrezko Binakako txapelketan finalerdietako 2. jardunaldia jokatu zen asteburuan. Errandoneak eta Martijak atzera ere galdu egin zuten, 22 eta 15, Lasoren eta Iturriagaren kontra. Hortaz, orain arteko finalerdietako ligaxkako 2 jardunaldiak galdu eta gero, finalera sailkatzeko aukerarik gabe geratu dira. Larunbatean, Labriten, finalerdietako 3. jardunaldian, Peña II.aren eta Salaberriren kontra ariko dira Errandonea eta Martija.



Sakandarrak Josetxo Ezkurra Memorialean

Lau t'erdiko txapelketa honetako partidak jokatu dira asteburuan

Asteburuan Josetxo Ezkurra Memorialeko partidak jokatu dira.

Sakandarren emaitzak

Benjaminak:
Igoa (Pilotajauku) 18 - Laida Taberna (Arkupe) 6
Gorospa (Sutegi) 6 - Aimar Beroiz (Andoain) 18

Kadeteak:
Perez (Oberena) 0 - Lopez de Zubiria (Gure Pilota) 18
Aritz Olague (Buruzgain) 18 - Lima (Gure Pilota) 0
Xabi Telletxea (Bortziriak) 13 - Igon Araña (Gure Pilota) 18

Jubenilak:
Egoitz Etxeberria (Eple) 3 - Urtzi Nazabal (Aldabide) 18
Oier Otxoa (Aldabide) 18 - Peio Etxabe (Zumaia) 13

Herri kirolak

Altsasu herri kirolarien topagune

XXX. Nafarroako Kirol Jokoen 3. Jardunaldia jokatu da igandean, 11:00etan, Altsasuko plazan

Ororbia eta Beteluko jardunaldien ostean, Altsasuri dagokio XXX. Nafarroako Kirol Jokoen 3. jardunaldia hartzea. Nafarroako txapelketan lehiatzen ari diren taldeetako herri kirolariek igandean, goizeko 11:00etan dute hitzordua, Altsasuko plazan.

Kimuen mailako proba konbinatua, haur mailako proba konbinatua, kadete mailako proba konbinatua eta, azkenik, haur eta kadete mailako sokatira probak jokatu dira. Jakina denez, Sakana Andra Mari eta Iñigo Aritz ikastoletatik sortutako 15 talde ari dira bertan lehiatzen, Berriozar, Baztan, Araitz-Betelu, Igantzi, Ultzama, Betelu, Ibero eta Antsoaingo taldeekin batera.



Proba konbinatuetan eta sokatiran lehiatuko dira, igandean, Altsasun.

Betelutzi zuena

Aurreko astean, Betelun, kimuen proba konbinatuan Andra Mari 2 izan zen azkarrena (6:53), Iñigo Aritz 2 (6:58), Andra Mari 4 (7:03) eta Andra Mari 7 (7:07) taldeen aurretik. Andra Mari 1 seigarre-

na sailkatu zen (7:10), Andra Mari 3 zortzigarrena (7:15), Andra Mari 5 bederatzigarrena (7:16), Andra Mari 6 hamahirugarrena (7:33), Iñigo Aritz 3 hamabosgarrena (7:34) eta Iñigo Aritz 1 hemezortzigarrena (7:46).

Pilota

Zabaleta: "Bihar, Labriten, hasieratik entxufatuta atera beharko dugu"

Igandean Irribarria eta Rezustaren kontra galdu eta gero (22 eta 15), larunbatean, Labriten, Olaizola II.aren eta Untoriaren kontra irabaztera behartuta daude Elezkanoko II.a eta Zabaleta

Binakako finalerdietako lehendabiziko jardunaldia ez zen ona izan Danel Elezkanorendako eta Jose Javier Zabaletarendako. Jakina zen Iker Irribarria eta Beñat Rezusta faboritoak zirela, baina Zabaletak gorabeherak izan zituen: tanto ikusgarriak huts nabarmenekin tartekatatu zituen. Eta Elezkanoko Zabaletak partida kontrolatu zuen tartetan soilik izan zen erabakigarria. Horrela, gipuzkoarrek lortu zuten finalerdietan jokoan zegoen puntua, 22 eta 15 irabazita.

Beste finalerdietako partidaren, Olaizola II.ari eta Untoriari 18 eta 22 irabazi zieten Bengoetxea VI.ak eta Larunbek.


Bihar, aurretiko finala

Finalerdietako ligaxkako 2. jardunaldian Elezkanoko II.ak eta Zabaletak Olaizola II.a eta Untoria izan-

Binakakoa. Finalerdietako 2. jardunaldia

Olaizola II.a-Untoria / Elezkanoko II.a-Zabaleta (larunbatean, 16:45ean, Labriten. ETB1)
Irribarria-Rezusta / Bengoetxea VI.a-Larunbe (igandean, 17:00etan, Atano III.ean. ETB1)

Biharkoa, beste final bat



Irribarriaren eta Rezustaren kontrako partidaren urduri jarri zela onartu zuen Etxarrengoak asteazkeneko material aukeraketan, eta nerbioek bere jokoa baldintzatu zutela. Larunbaterako argi du egin beharrena: hasieratik irabaztera ateratzea. "Positiboan pentsatu nahi dut eta larunbaterako partidarako animo askorekin nago" adierazi zuen Zabaletak. "Eibarko partidaren zer gertatu zitzaidan? Urduri jarri nintzela. Eta argi dago Aimarren eta Alvaroren kontrako partidaren beste mentalitate batekin atera beharko naizela kantxara" onartu zuen. Larunbatean hasieratik partidaren sartuta egotea "gakoa" izango dela nabarmendu zuen Zabaletak. "Gakoa lehen segundotik entxufatuta ateratzea izango da, hasieratik irabaztera ateratzea" aitortu zuen Etxarrengo atzelariak. "Zabaleta atzean indartsu egotea eta nik aukerak aprobetxatzea, horretan oinarritu beharko dugu jokoa" gaineratu zuen Danel Elezkanok. "Pilota gutxi galtzen baditugu irabazteko aukerak izango ditugu. Ea hasieratik ongi hasten garen" nabarmendu zuten. Materialari dagokionez, Aimarren eta Alvaroren pilotak frontisetik gutxi ateratzen direla aipatu zuen Zabaletak, "baina lurrean gehiago ibiltzen dira gureak baino. Dena den, uste dut pilota politik izango direla guztiak" azaldu zuen. Larunbaterako partida "beste final bat" izango dela argi du Aimar Olaizolak. "Materialarekin, inongo arazorik gabe. Guk nahi genuena aurkitu dugu. Partida garrantzitsua da hau, beste final bat. Ez da erraza izango, bikote handia direlako eta atzelari ikaragarria delako Zabaleta, ongi badago partida gehienak irabazten dituen. Zabaletak asko ematen dio, eta guk defendatu, lana egin eta jokoan sartzen saiatu... horretan saiatuko gara" azaldu zuen Goizuetako aurrelariak.

go dituzte aurkari bihar, larunbatean Labriten (ETB1). Punturik gabe, irabaztera behartuta daude bi bikoak. Hortaz, final aurreratu

bat izango da biharkoa. Ea Zabaletak eta Elezkanok egun ona duten eta puntu garrantzitsu hori lortzeko gai diren beteko den Labriten.

Haur mailako proba konbinatuan Araxes gailendu zitzaizen (8:56), Andra Mari 3 (9:03) eta Andra Mari 2 (9:17) taldeei. Iñigo Aritz bosgarrena izan zen (9:38) eta Andra Mari 1 hamargarrena (10:42). Eta kadete mailako proba konbinatuan Basaburuak irabazi zuen (10:03). Andra Mari 1 hirugarrena izan zen (11:11).

Sokatira

Haur mailan (480 kilo) A multzoan Basaburuak izan zen finena (5 puntu), Andra Mariaren aurretik (4 puntu). B multzoan Iñigo Aritz (5 puntu) gailendu zen, Andra Mari 2 bigarrena izan zen (4 puntu) eta Andra Mari 1 hirugarrena (3 puntu). Bukatzeko, kadete mailan (540 kilo) Basaburuak (3 puntu) ibili zen hobekien, Andra Mari 1 taldearen aurretik (2 puntu).

Areto futbola

Koparen ondoren liga berrartuko du Magna Gurpeak

Espainiako Kopako finalerdietan azken segundoa irabazi zion El Pozok Magna Gurpea Xotari

Segundo batek guztia alda dezake. Esan diezaiotela, bestela, Magna Gurpea Xotari. El Pozo Murciaren kontra Ciudad Realen jokatuako Espainiako Areto Futboleko Kopako finalerdian, El Pozo talde ahaltsua zen partida irabazteko faborito argia, baina partidaren gutxi nabaritu zen hori, bi taldeak parez pare ibili zirelako. Lehen zatian berdeek dominatu zuten eta Araçak gola sartu zuen. Aukera gehiago ere izan zituzten berdeek, baina hutsegini zituzten. Bigarren zatian El Pozok berdintzea lortu zuen penalti bikoitza bati esker. Partida penaltietan erabakiko zela zirudienean, azken segundo madarikatuan, Cardinalek Eric Martelek defendatutako atea zulatatu zuen.

"Sekulako kolpea izan da, baina oso kontentu nago mutilek egindakoarekin" azaldu zuen Imanol Arregi entrenatzaile irurtzundarrak, guztiz hunkituta. "Modu krudelenean galdu dugu. Taldearendako klabeak diren Eserverri eta Tomoki lesionatu zaizkigu baina ez dugu behera egin. Talde oso harronago, kristonada" penatu zuen Roberto Martil kapitaina.

Gaur Palma Futsal arerio

Kopako abenturaren ondoren ligara itzultzeko tarte da. Egun, lehen mailako ligan Movistar Inter da liderra (60 puntu) eta Magna Gurpea Xota zazpigarrena da (38 puntu). Gaur, ostiralean, Magna Gurpeak sailkapenean postu bat gorago dagoen Palma Futsal hartuko du, 21:15ean, Anaitasuna pabilioian.

Mendi lasterketak



Aritz Munarriz.

Katarain eta Munarriz Zuzenien bertikaleko Top-10-ean

Sakandarrak IX. Zuzenien Igoera Bertikalean (3,3 km)

- 1. Imanol Goñi (Ea): 32:44
- 6. Beñat Katarain (Lak): 36:01
- 10. Aritz Munarriz (Etx): 36:45
- 40. Asier Reparaz (Arb): 43:15
- 86. Ander Rosado (Arb): 52:04

Sakandarrak Orioko lasterketan (21 km)

- 1. Ruben Ruzafa (Aizarnazabal): 1:49:29
- 64. Fran Araña (Arb): 2:15:53
- 152. Asier Leiza (Arb): 2:33:59

Igandean jokatu zen, Azpeitian, XIV. Zuzenien Igoera Bertikala, 3,3 km-ko proba bertikal gogorra. 98 mendikorrikalarik hartu zuten parte eta Imanol Goñi eatarra gailendu zen (32:44). Sakandarrek lan ona egin zuten eta bi Top-10ean sartu ziren. Beñat Katarain lakuntzarra seigarren postuan sailkatu zen (36:01) eta Aritz Munarriz etxarriarrahargarren postuan (36:45).

Arbizuarrak Orion

Orioko mendi lasterketan (21 km), aldiz, 311 korrikalarik hartu zuten parte eta Ruben Ruzafa zeharkatu zuen, lehendabizi, helmuga (1:49:29). Fran Araña arbizuarra 64.a sailkatu zen (2:15:53), lehen sakandarra.

Atletismoa

Antton Zelaia seigarrena Beasainen

Sakandarrak VII. Beasaingo lasterketan (14 km)

- 1. Endika Donnay (Arrasate): 46:17
- 6. Antton Zelaia (Urd): 48:39
- 32. Iraitz Senar (Lak): 56:56
- 40. Gaizka Diaz de Garaio (Bak): 58:33

Sakandarrak XI. Sagar Lasterran (8,5 km)

- 1. Raul Gomez (Lasarte): 29:55
- 20. Felix Benjumea (Alts): 32:35
- 55. Alfredo Larraburu (Irun): 35:40
- 70. Kaxi Estarriaga (Etx): 36:52
- 74. Asier Estarriaga (Etx): 37:16
- 131. Xabier Martinez (Alts): 40:44

Igandean VII. Beasaingo Herri Lasterketa jokatu zen. Proba luzea (14 km) 94 korrikalarik osatu zuten eta Endika Donnay arrasatearra izan zen azkarrena (46:17). Sakandarren artean Antton Zelaia urdiaindarra izan zen azkarrena, seigarrena helmugan (48:39). Egun bat lehenago, larunbatean, XI. Sagar Lasterra proba hartu zuen Hernanik (8,9 km). 321 korrikalari iritsi ziren helmugara Raul Gomez lasartearra buru zela (29:55). Felix Benjumea altsasuarra izan zen lehen sakandarra, helmugan 20.a (32:35).

Disko jaurtiketa

23 urtez azpiko Europako disko jaurtiketa txapelketako laugarrena sailkatu zen bakaikuarra eta bere marka pertsonala hobetu zuen (53,86 m)

Duela aste bat Espainiako disko jaurtiketa txapelduna izatea lortu ondoren (51,76m), asteburuan Europako Jaurtiketen Txapelketan parte hartu zuen June Kintana disko jaurtitzaila bakaikuarrak Espainiako selekzioarekin, Las Palmas de Gran Canarian. 23 urtez azpiko mailan lehiatu zen bakaikuarra. Claudine Vita alemaniarra izan zen txapelduna (58,76m) baina June Kintanak bere marka pertsonala (52,90 m) ia metro batean gainditu zuen eta laugarrena sailkatu zen (53,86 m). Beraz, bakaikuarraren progresioak aurrera jarraitzen du eta Europako podiuma zapatzetik oso gertu geratu zen Kintana.

“Europako Kopan nire helburua disfrutatzea eta ahal dudan hobekien egitea izango da” esan zuen

Kintana, Europako laugarrena



Kintanak. Argi dago helburua lortu duela, bere marka pertsonala gainditu baitu. Bakaikuko atleta Leongo Unibertsitatean albaitaritza ikasten ari da eta CEAR zen-

troan (Centro Especial Alto Rendimiento Deportivo) disko jaurtiketa entrenatzen du. Estatuko jaurtitzaila onenetakoa da eta ora indik progresio handia du aurretik.

Futbola



Apaolaza, Igoa eta Cerezo Errealarekin entrenatzen

Altsasuko jokalariek Errealaren teknifikazio saioetan parte hartzen ari dira

Errealak teknifikazio saioak antolatzen ditu eta hara entrenatzera deitzen dituzte inguruko taldeetako zenbait jokalarik. Horrela, Errealak deituta, Altsasu taldeko Irati Igoa, Aroa Cerezo eta Jone Apaolaza Errealarekin teknifikazioa lantzen joaten hasi dira. Astearen behin entrenatzen dute Altsasu taldeko jokalarik hauek eta esperientziarekin oso kontentudate.

MOTZAK

Uncillaren eta Villarren Quick Step-Telco´m, aurkeztuta

Asteartean aurkeztu zuten, Iruñean, 23 urtez azpiko afizionatuen Quick Step-Telco´m Gimex taldea. Helburua txirrindulari gazteak trebatzea da, biharko egunean aukera gehiago dituzten taldeetara saltoa egin dezaten. Alex Uncilla eta Pablo Villar sakandarrak daude taldeko txirrindularien artean, Denboraldiari ekin diote eta egutegi zabalak dute aurretik.

Txirrindularitza

Sakandarrak Espainiako Pista Txapelketan

Josu Etxeberria, Hodei Zia, Bakarne Gonzalez eta Joana Irastorza Espainiako Pista Txapelketako 2. jardunaldian aritu ziren, Tafallan

Asteburuan Espainiako Pista Txapelketako bigarren jardunaldia jokatu da Tafallan. Tartean, txirrindulari sakandarrak lehiatu dira. Nafarroako selekzioarekin Josu Etxeberria iturmendiarra, Hodei Zia altsasuarra eta Bakarne Gonzalez altsasuarra lehiatu dira. Joana Irastorza etxarriarra, aldiz, CAF Turnkey Engineering taldearekin. Bestalde, Burunda klubean dabilen Mateo Gonzalez Gaztela eta Leongo selekzioarekin aritu zen. Guztiek lan oso txukuna egin zuten.

Espainiako Pista Txapelketako sailkapen orokorrean, emakumezkoen junior mailako abiadura sailkapenean Bakarne Gonzalez bosgarrena da eta gizonezkoen junior mailako fondisten sailkapenean Josu Etxeberria bederatzigarrena.

Etxeberria laugarrena Azpeitian

Igandean 36. San Jose Saria jokatu zuten juniorrek Azpeitian. El

Porex-Iturriberro taldeko Oier Lazkano izan zen txapelduna (2:09:43), Intersport Irabia taldeko Josu Etxeberria 4.a sartu zen, juniorren lehen urteko lehena. Quesos Albenizko Iñigo Fernandez 10.a sartu zen. Bere taldekide Ailetz Lasa 21.a izan zen eta Juan Riaño 22.a. Taldeka Quesos Albeniz hirugarrena sailkatu zen.

Arrieta bigarrena



Larunbatean, Aiarako Birako hirugarren etapen, Pablo Gutierrez gailendu zen, eta 17 segundora sartu zen Aralar-Intersport Irabiako Igor Arrieta. Lehen urteko lehen kadetea izan zen. Bere taldekide Urko Gorriti eta Aitor Alberdi 16.a eta 17.a izan ziren, Quesos Albenizeko Iker Mintegi 19.a, talde bereko Unai Aznar 25.a eta Intersporteko Inhar Astiz 27.a. Talde onena Intersport Irabia izan zen.

Maiza eta Beraza emakumeen Nafarroa Ermitagañan

15 eta 19 urte bitarteko 13 emakumezkoen Nafarroa Ermitagaña Navarra txirrindularitza taldea. Ermitagaña klubaren barruan sortu da, Nafarroako Kirol eta Gazteria Institutuaren, Iruñeko Udaleren eta hainbat entitate eta babesleren laguntzarekin. Emakume nafarrek txirrindulari non aritu izan dezaten sortu da taldea. Tartean Leire Maiza etxarriarra eta Maria Beraza uhartearra daude, David Latasaren aginduetara (Ikus 11 Galderak).

Futbola

FEDERATUTAKO TXAPELKETA

PREFERENTE MAILA. 1. multzoa

22. JARDUNALDIA

ETXARRI ARANATZ 3 - LEZKAIRU 2 LAGUN ARTEA 1 - SAN ANDRES 1

Euripean eta haizearekin jokatuak partidaren, 3 puntuak Etxarrin geratu ziren. Lezkairukoak aurreratu ziren, bi gol sartu baitzituzten. Garatek sartu zuen Etxarrin lehen gola. 2. zatian baloiaren jabetza bereganatu zuen Etxarrin eta Lezkairu jokalarik bat gutxiagorekin geratu zen. Perkazek binakakoa sartu zuen eta 89. minutuan Alainez garaiaren gola. Lakuntzan, aldiz, galtze zaporea izan zuen puntu berdinketarekin despiditu zen lehia. Lehen zatian Aiegikoen atea zulatzeak makina bat aukera izan zuten Lagun Artekoek, baina San Andresen ate aurrean ez zuten asmatu. Horretaz aparte, gol bat balio gabetu zioten lakuntzarrei. Azkenean Ruizek Lagun aurreratzea lortu zuen. Partida bukatzean zegoela eta zorigaitzoko jokaldi nahasi batean, ate propioan sartu zuten gola lakuntzarrek. Eta horrela bukatu zen lehia. Aipatzekoa da Bayern Münicheko jokalarik Javi Martinez bere herritarren partida jarraitzen izan zela Lakuntzan.

Sailkapena >>

- 1. Bidezarra 52 p
- 4. Etxarri Aranatz 35 p
- 5. Lagun Artea 33 p

Asteburuko jardunaldia

MUTILBERA - ETXARRI ARANATZ

(Igandean, 17:00etan, Mutiloan)

LEZKAIRU - LAGUN ARTEA

(Igandean, 16:00etan, Lezkairuko Sotoan)

ERREGIONAL MAILA. KOPA

KOPAKO 1. JARDUNALDIA. C MULTZOA

ITAROA UHARTE 3 - ALTSASU 1

Erregional mailako liga despidituta, asteburuan Erregional Mailako Kopari ekin zion Altsasuk. Koparako entrenatzaile berria du talde gorritxoak, Joseba Bakaikoa lakuntzarra. C mailan dago Altsasu. Asteburuan joaneko partida jokatu zuten Uhartelruñean. Lehen zatian etxekoek dominatu zuten, baina Altsasuk atezainak geldialdi bikainak egin zituen. Bi gol sartu zuten Uhartel, eta nahiz eta Vergararen golari esker Altsasu markagailuan gerturatu, Uhartelruñeak hirugarren gola sartu zuen, garaiarenarena.

Asteburuko jardunaldia

ALTSASU - ITAROA UHARTE

(Larunbatean, Dantzalekun)

EMAKUMEZKOEN ERREGIONALA

19. JARDUNALDIA

GAZTE BERRIAK 6 - ALTSASU 1

Sailkapena >>

- 1. Osasuna 52 p
- 10. Altsasu 15 p

Asteburuko jardunaldia

ALTSASU - ARDOI

(Igandean, 12:15ean, Dantzalekun)

ELOMENDIKO TXAPELKETA

21. JARDUNALDIA

UNZITI 2 - ZALDUA 1

Sailkapena >>

- 1. Unziti 53 p
- 3. Zaldua 40 p

Asteburuko jardunaldia

ZALDUA - BERIAIN

(Larunbatean, Lekunberrin)



Maialen Aramendiak Setmana de Valencia osatzea lortu zuen

Asteazkenean hasi eta larunbatean despiditu zen emakumezkoen Setmana de Valencia lasterketa. 146 txirrindulari lehiatu ziren, 26 taldetan. Proba gogor horretan Cerveleto-Bigla taldeko Cecilie Ludwigt txirrindulariak lortu zuen garaiena (7:08:41). Jubenil mailako Maialen Aramendia Espainiako selekzioarekin lehiatu zen. Iturmendiarrak lasterketa despiditza lortu zuen. 117.a sailkatu zen sailkapen orokorrean (7:44:02)

Duatloia

Bihar Altsasuko duatloia jokoan

VII. Altsasu Duatloia jokatu da bihar, larunbatean. Goizeko 10:30ean Nafar Kirol Jolasen Duatloi probaren txanda izango da, eta 15:45ean nagusien proba jokatu da. Altsasukoa, aldi berean, Nafarroako Sprint Duatloi Txapelketa izango da



laz bertan behera geratu zen proba, elurragatik. Bihar eguraldi ona espero da.

Aurten bai. Bihar, martxoaren 18an, larunbatekin, Sakana Triatloi Taldeak hainbat entitate eta babesleren laguntzarekin antolatutako VII. Altsasuko Duatloia jokatu da. Izan ere, aurreko urtean otsailaren 27an jokatzekoa zen duatloia, baina, elurrarengatik, ezin izan zen burutu. Aldiz, biharko eguraldi polita iragarri dute eta Sakana Triatloi Taldeak dena prest du proba zoragarri hau burutu ahal izateko.

Goizean, 10:30ean, kategoria txikiak ariko dira lehian, Nafar Kirol Jokoetarako (NKJ) balia garria den proban, eta arratsaldean, 15:45ean, proba nagusia jokatu da -15:45ean emakumezkoak eta 16:00etan gizonezkoak. VII. Altsasuko Duatloia, aldi berean, Nafarroako Sprint Duatloi Txapelketa izango da eta Euskal Herriko Zirkuiturako balia garria izango da.

Goizean txikiak, Txioan

Kategoria txikiak Txioan haur ikastolaren inguruetan prestatutako zirkuituan lehiatu dira, Nafar Kirol Jolasetarako balia garria izango den proban. Aurrebenjaminak

10:30ean hasiko dira (250m-1 km-125 m), benjaminak 10:50ean (500 m-2 km-250 m), kimuak 11:30ean (1 km-4 km-500 m) eta haurrak 12:00etan (2 km-8km-1 km). Juniorrek eta kadeteek helduen proban parte hartuko dute.

Arratsaldean helduak: 5 km-22 km-2,5 km

VII. Altsasuko Duatloia arratsaldeko 15:45ean abiatuko da Foruen Plazatik. 15:45ean emakumeak abiatuko dira eta 16:00etan gizonezkoak.

Duatletek ohiko ibilbideari egingo diote aurre. Altsasuko herri gunean prestatutako 2,5 km-ko zirkuituari bi bira eman beharko dizkiote korrika, segidan Iortia Kultur Gune-

aren aurrean dauden boxetan, trantsizio gunean, bizikleta hartu eta 22 km-ko distantzia osatzeko. Hasieran, duatletek Olaztiraino joko dute, Urbasako portua igotzen hasi, eta Altamirako bidegurutzan behera kobidea hartuko dute, Altamirajaitziz. Altsasu zeharkatuta NA-1000 errepidean aurrera egingo dute, Zegama Ortzaurreko bidegurutzaraino. Bertan buelta osoa hartuko dute, Altsasuko boxetara joan arte. Bukatzeko, bizikleta utzi eta 2,5 km-ko zirkuituari bira bat eman beharko diote korrika, Foruen plazako hel mugara iristeko.

Parte hartze polita espero da

Aurreko urtean elurrarengatik

Duatloia

Garcia de Eulate hirugarrena eta Astiz laugarrena Arangurenen.

Sakandarrak V. Aranguren Bailarako Duatloian

1. Iñigo Sevillano (Arenas):	49:24
3. Sergio Garcia de Eulate (Sak):	49:38
4. Mikel Astiz (Saltoki):	49:48
19. Juan Luis Maiza (Sak):	52:48
20. Fco. Javier Gomez (Sak):	52:55
38. Juan Carlos Gomez (Sak):	55:29
44. Mikel Lakuntza (Sak):	56:06

Asteburuan Arangurengo Duatloia jokatu da (5 km korrikan, 15 km bizikletan eta 2,5 km korrikan). 148 duatleta iritsi ziren hel mugara, Arenas taldeko Iñigo Sevillano buru zela (49:24). Sakana Triatloi taldeko Sergio Garcia de Eulate hirugarrena sailkatu zen (49:38) eta Saltoki Triatloi taldeko Mikel Astiz ihabardarra laugarrena (49:48).

proba bertan behera geratu zen, eta duela bi urte, eguraldi oso desatseginarekin, guztira 109 duatleta aritu ziren proba nagusian eta Raul Amatriain eta Ana Casares izan ziren azkarrenak. Atzo Nafar Kirol Jolasetan 111 duatleta eta helduen proban 140 duatleta zeuden izena emanda. Eguraldia lagun, parte-hartze polita eta ikusle ugari espero dira.

Atletismoa



Lilasterketa aurrera!

77 emakumek hartu zuten parte emakumearen aldeko proban

Emakumeen Nazioarteko Egunean antolatutako ekitaldien barruan, IV. Lilasterketa jokatu zen igandean Altsasun, Altsasuko Udaleko Emakumeen Bilguneak Dantzaleku Sakana klubaren laguntzarekin antolatutako emakumeen proba.

Eguraldi kaxkarraren aurrean ezziren kikildu. Batzuk korrikan; patinekin besteak; haurrak aulkitxoetan eramaten batzuk; paseoa emateko asmoz besteak; eta pro-

ba bizikletan osatzeko asmoarekin azkenak. Helburua emakumeen parte-hartzea sustatzea zen.

Sakanako hainbat herritako 77 emakumek hartu zuten parte eta bukaeran auzatea izan zen.

Dantzaleku Sakana, omendua

Ekitaldian Dantzaleku Sakana klubari errekonozimendua egin zioten, atletismoan emakumearen parte-hartzea bulkatzeagatik. Oroigarri bat jaso zuten klubeko ordezkariak, biziki eskertu zutena.

Kiroldegia

Emakumeek kirolean esateko asko dutelako



Emakumeen kirol erakustaldia izan zen larunbatean Zelandin

Martxoaren 8aren inguruan antolatutako ekitaldian, emakumeen kirol erakustaldia hartu zuen Zelandi kiroldegia larunbatean. Bertan, Altsasuko kirol eskola guztietan trebatzen diren neska eta emakumeek hartu zuten parte.

Kirol eskola bakoitzak 10 minutuko tartea izan zuen erakustaldia egiteko. Zehazki ondoko kirol eskoletako partaideak aritu ziren: tenisa, futbola, gimnasia erritmikoa, txirringarritza, irristaketa, saskibaloia, taekwondo eta yoseikan budoa. Emakumeak kirolariak direla, kirol guztietan aritzen direla eta kirola egiten ongi pasatzen dutela argi geratu zen.

Non erabili

TANIA ARRANDEGIA

LAKUNTZA

50€ko gastuarekin, etxeko produktua doan.

LAKUNTZAKO OSTATUA

LAKUNTZA

Menuarekin, kafea edo kopa doan.

ZURE EKO DENDA

IRURTZUN

€10 eko deskontua kontsulta terapeutikoetan.

HOTEL OLATZEA

ARBIZU

Eguneko menuarekin, kafea doan, menu bereziarekin, txupittoa doan.

ETXARRI HORTZ KLINIKA

ETXARRI ARANATZ

%10eko deskontua garbiketetan.

LURESU

ALTSASU

%10eko deskontua eskaintza berezi eta enkarguetan izan ezik.

NORTE ERLOJUDENDA

ALTSASU

%7ko deskontua produktu berrietan, konponketetan eta aldaketetan salbu.

MENDIGAIN URDEIAZPIKOAK

LAKUNTZA

50€ko erosketa eginez gero etxeko produktua opari.

URREZKOA BITXIDENDA

IRURTZUN

Bitxietan 100 €ko erosketa egitean, %10eko deskontua.

ETXARRI KOMERTZIALA

ETXARRI ARANATZ

%10eko deskontua menpekotasun altzarietan.

www.guaixe.eus-en zerranda osoa ikusgai



BAZKIDETZA 50€
948 564 275

kultura >>

ARBIZU LABURBIRAREN EGOITZETAKO
BAT: Euskaltzaleen Topaguneak antolatu-
zen duen euskarazko film-laburren zir-
kuitua da Laburbira. 14. edizioan 32 herri-

tan emanen dira zortzi-film labur, Euskal
Herrian eta atzerrian. Emanaldi horietako
bat Arbizon izanen da, apirilaren 2an.

Lazkoz, final-erdietan, lanera

18 bertsoariarekin aurrera egi-
ten du 43. Nafarroako Bertso-
lari Txapelketak. Final erdie-
tako hiru saioetan ariko dira ber-
tsolariak bihartik aurrera.
Aurreneko saioa Berako kultur
etxean jokatu da bihar, 17:30ean.

emanda, hiruna bertso zortziko txi-
kian; binaka, gaia emanda, hiru-
na bertso sei puntuko motzean eta
kartzelako lana (banaka, lehen
puntua emanda, bi bertso zortzi-
ko txikian eta, banaka, gaia eman-
da, bi bertso nahi den doinu eta



Bertsotan honako sei kotea ariko da:
Julio Soto, Iñigo Olaetxea, Ander
Fuentes, Kotte Plaza, Alazne Untxa-
lo eta Eneko Lazkoz. Txapelketan
aurrera egin duen beste bertso-
lari sakandarra, Oier Lakuntza, hila-
ren 26an ariko da Agoitzen.

Final-erdietan bertsolariak
honako lana egin beharko dute:
binaka, gaia emanda, hiruna ber-
tso zortziko handian; binaka, gaia

neurrian). Saio bakoitzeko ira-
bazleak finalerako zuzeneko txar-
tela eskuratuko du. Gainera, pun-
tu gehien batzen dituzten beste bost
bertsolariarekin osatuko da finale-
ko taldea.

www.bertsosarrerak.eus

Web orri horretan eros daitezke saioeta-
ko sarrerak.

Maitasuna antzezlanera



Larunbatean, 19:00etan, Arbizuko
Argi-bidea elkarteak *Maita zera ere!*

Marixuren eta Bartoloren
arteko maitasun istorioa
aintzat hartu eta handik abiarazi
dute obra Hamaika buelta antzer-
ki taldekoek: "Kimika hutsa gare-
la diote. Maitasuna. Modu batean
edo bestean danoi egin, eragin
edo desegiten gaituena. Protago-
nistek, maitasuna defendatuko
dute guztiaren gainetik, inguruak
jartzen dizkien oztopoak gaindi-
tzeko asmoz. Hori ez bada, zer da,
ba maitasuna?"

Hamaika buelta Lezoko Badia
eskolako helduen antzerki taldea
duela lau urte sortu zen. *Zintzo-
zofrenia* antzezlan izan zen haien
aurreneko proiektua. Arbizon
jokatuko dute *Maita Zera Ere!*
antzezlan, bigarrena, joan den
urteko maiatzaren 22an mustu
zuten.

Sakanako Pop-rock lehiaketak baditu datak

Lakuntzako Udalak, La Banda
del jefe Bigun taldeak eta
Hatortxu Rockek antolatuta-
ko lehiaketan 11 talde sakandarrek
eman dute izena. Azken horien
ordezkariak antolatzaileekin elkar-
tu ziren atzo. Lehiaketaren nondik
norakoak argituta, egutegia zehaz-
tu zuten ere. Sakanako Pop-rock
lehiaketak hiru kanporaketa izanen
ditu apirilaren 22an (larunbata),
28an (ostirala) eta 29an (larunbata).
Hiru talde onenak maiatzaren 6an
(larunbata) jokatu den finalean
ariko dira.

Kanporaketetan talde bakoitzak
15 eta 25 minutu arteko emanaldia
eskaintzeko aukera izanen du. Par-
te-hartzaileek euren lau kanta aur-
keztu beharko dituzte eta emanal-
diaren gainontzeko tartea bertso-
ekin osatu dezakete. Saio guztiak
Lakuntzako kultur etxean izanen
dira eta sarrerak bi eurokoak izan-
en dira. Lortutako dirua sarieta-
ra bideratuko da. Gainera, sarre-
rak ikusleei botoa emateko esku-
bidea emanen die. Izan ere, ikusleen
botoek epaimahaikide baten boto-
ak adina balioko du.



11 parte-hartzaileak

Shokdown, SLD, Embajada, Bru-
tal Room, Atzapa Rock, Unna-
mables, Alerta Gorria, Dentera,
KasKataKo, Zintz eta Garabatos.

Sariak

1. Diskoa grabatzeko 40 ordu-
ko grabaketa antolakuntzak
aukeratutako musika-estudio
batean. Master-kopia edo nahas-
keta, taldearen kontura.
2. Abesti baten produkzioa eta
grabaketa egiteko 8 orduko jar-
dunaldia musika-estudio bate-
an, ekoizle profesionalarekin.
Sari berezia: Hatortxu Rock 20n
kontzertua ematea.

Martin Ziordiko irakurleekin

Ziordiko liburutegiak beste
behin idazle batekin topake-
ta hartu zuen joan den ostegune-
an. Oraingoan ganboikoko litera-
tur txokora igo zena Ibon Martin
idazlea izan zen. Irakurle ziordia-
rrekin *El último akelarre* liburua-
ri buruzko iritziak trukatu zituen
Martinek. Topaketan elkartu ziren
ziordiarrak "oso gustura" egon
ziren. Bakarren batzuk liburuan
egilearen sinadurarekin etxera
buelatu ziren. Baita Martinen



hurrengo lanaren inguruko
"arrasto" batzuekin ere.

Sormenaren indarra

Alzheimerra edo ezagutzaren
narriadura duten egileen erakusketa

Altsasuko Iortia kultur gune-
ak erakusketa berezia du
egunotan: Oroimenaren begira-
da arte-terapiaren ikuspuntutik.
Sakanako bederatzi sortzailek
hainbat teknikarekin egindako
lanak ikus daitezke. Bederatziko-
te horren berezitasuna da Josefi-
na Arregi klinika psikogeriatriko-
ko eguneko zentroko edo kanpo
kontsultetako erabiltzaileak dire-
la. Helena Santano Cid arte-tera-



peutarekin lau hilabetez 25 saio-
etan joan den urtean egindako
lanak dira ikusgai daudenak, api-
rilaren 2ra arte.

Umeendako musika tailerra

Altsasuko Musika eta Dantza Esko-
lak 0 eta 3 urte bitarteko umeenda-
ko musika tailerra antolatu du.
Maiatzaren 8tik 31ra bitartean izan-
en da tailerra, 45 minutuko lausaio
(18:45etik 19:00etar). Adinaren ara-
berako bitalde sortuko dituzte, 4 hila-
betetik urte betera (astelehene-
tan) eta urte betetik hiru urteetara (aste-
azkenetan). Izen ematea astelehene-
an zabaldu eta apirilaren 7ra arte
egin daiteke (25 euro). Informazio
gehiago: www.altsasumusikae.com.

Anda Forma 70's erakusketa

Kultura, Kirol eta Gazteria
Departamentuak eta Nafa-
rroako Kutxa fundazioak
hitzarmenasinatu zuten otsailaren
24an. Haren arabera, foru adminis-
trazioak, Nafarroako Museoaren
bidez, fundazioaren 717 artelanak
jaso, zaindu, kontserbatu eta zabal-
duko ditu. Hitzarmen horren aurre-
neko fruitua Forma 70's. Abstrak-
zioa eta figurazioa Nafarroako
Kutxa fundazioaren Bilduman era-
kusketa da. Joan den mendeko

70eko hamarkadako sortzaileen 44
lan biltzen ditu erakusketa. Horien
artean dago Jose Ramon Anda
bakaikuarraren Borobila iru zati-
tan egurrezko eskultura.

Sakandarren lanak fundazioan

Duela hiru urte Kontuz erakunde-
ak salatu zuen Nafarroako Kutxa
fundazioak aurkeztu zuen arte
inbentarioa 2011koan zeuden 157
artelan falta zirela. Desagertutako

lanen artean zeuden Txuspo Poyo-
ren *Mujer en el vacío* argazkia (186
x124). Fundazioak bere web orri-
an argitaratutako inbentario berri-
an oraindik zenbait artistaren lanak
faltatzen omen dira, baina ez altsa-
suarrarena. Poyorenaz eta Balda-
renaz aparte, fundazioaren funtse-
an beste bi sakandarren lanak ere
badaude: Asun Goikoetxearen
Zeruak serieko teknika mistoko bi
pieza. Dora Salazarren *Soliloquio*
I eta *Izenik gabekoa* eskulturak.



Erakusketa datak

Non	Noiz
Tutera Maria Forcada fundazioa	Apirilaren 2ra arte.
Iruñea, Nafarroako Museoa	Garagartzaroaren 15etik lastailaren 1era
Lizarrak, Gustavo de Maeztu Museoa	Lastailaren 18tik abenduaren 17ra.

Ta Lauén jendaurrera



Irlandako musika eskainiko dute larunbatean, 19:00etan, Altsasuko Haritza tabernan

Laukote sakandarraren aurreneko emanaldia izanen da biharkoa. Javier Unamuno (klarinete baxua), Olatz Garde (biolontxelo), Andoni Otamendi (saxofoia) eta Leire Palacios (klarinetea) dira Ta Lauén; aurretik beste kideren bat izan da. Gaur Irlandako patrioiaren eguna dela eta, Patrizio deuna, irlako musikaz osutako errepertorioa prestatu dute propio, hango tabernetako musika emanaldi informalen errekreazioa izanen dena.

Taldeak urte eta erdiko ibilbidea du. Lau musikariak Haize Berriak bandako kideak dira eta han ezagutu zuten elkar. Tresna desberdinekin bestelako musikak jo zitezkeela sinistuta Ta Lauén laukoteak bere errepertorioan musika klasiko, euskal folklorea edota Irlandako musika ditu. Gainera musika joz emanaldiak egin dituzte aurretik, baina jendaurreko aurreneko kontzertua dute irlarndar musikarekin. Palaciosak azaldu digunez, euren asmoa “musikarekiko pasioa transmititzea da eta gozaraztea”.

Petti, edo blues-soul-rock-r&b dosia

Gaur, 22:30ean, Olatzagutiko Barandi tabernan

Hamaikagarren erreferentzia argitaratu zuen joan den urtean Pettik. Etxeko Uzta taldearekin argitaratu zuen *Hotzikarak* (2016, Elkar), Olatzagutian aurkeztuko duena. Ahots sakon goxoaz kantatutako blues, rock eta folk tradizio-kodestilazio berezkoa eskainiko du Pettik; gitarrarekin trebe, misterioz, maitasunaz eta askatasunaz konposatuta.

Zea Mays gaztetxearen urteurren egitaraua

Larunbatean, 23:00etan, Etxarri Aranazko gaztetxean

Hamar urte, hamaika eitteko lelopean Etxarri Aranazko Gazte Asanbladak gaztetxearen 10. urteurrenarako egitaraua prestatu du. Hirugarren hitzordua bihar izanen da, ez nolana hiko: Zea Mays-ek *Harro* diskoa aurkezteko kontzertua eskainiko du.

Irakurketaz Gozatzeko

Euskarazko liburuen irakurketa sustatzeko Irakurri, Gozatu eta Oparitu egitasmoa astelehenean martxan jarriko dute Sakanako Mankomunitateak, liburutegi publikoek eta liburu dendek

Irakurri, Gozatu eta Oparitu (IGO) Euskaltzaleen Topaguneak berrogei herritan abiarazi duen kanpaina bat da, euskarazko liburuak irakurtzea bultzatzeko. Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak bat egin du kanpainare-



kin eta sakandarren artean “irakurketaren plazer aldarrikatzea eta plazer hori partekatzea ahalbidetzea, eta opari bihurtzea” sustatu nahi du. Hala, jarduera pertsonala den irakurketa sozializatzeko bide ere bilakatzen da.

Bestalde, IGO kanpainak eskaintzen dituen abantailen

bidez euskarazko literatura ikusarazi eta sustatzen da. Egitasmoak ere liburutegi publikoen erabilera sustatzen du, edozein erabiltzaileari doan eskaintzen dizkioten zerbitzuei eta aukerak bultzada ematen die, eta liburu-dendek salmentak handitzea ere dakar berekin.

Pertsona bakoitzeko txeket kopurua ere mugatuta dago: lau txeket pertsona bakoitzeko, bi apirilean eta bi maiatzean. Hilabete bakoitzean, gainera, zozketa bana egingo da, non egitasmo honen erabiltzaileen artean 30 euroko bost txeket zozketatuko diren, euskarazko liburuak eros ditzaten.

Martxoaren 20tik maiatzaren 31ra arte

- 1** Hartu euskarazko liburu bat liburutegitik, eraman etxera eta... gozatu bidaiaz.
- 2** Irakurritakoan itzuli, irakurle-fitxa bete eta jaso zure erosketatxeke liburutegian. (hileko 2 txeket pertsona bakoitzeko)
- 3** Erosi liburu bat %35 merkeago zure txeket erabiliz (garagarzaroaren 10era arte erabilgarri)
- 4** Oparitu erositako liburua; senide, lagun, lankideren bati...edo zeure buruari, merezi duzu eta.

Apirilean 30 euroko 5 txekeren zozketa | Maiatzean 30 euroko 5 txekeren zozketa

Liburu-denda parte-hartzaileak

Martxueta (Irurtzun), Kaxeta (Etxarri Aranatz) eta Liburunda eta Arkatz (Altsasu).

Gure kantari txiki-handien sormen jaialdia

Igandean, 18:00etan, Lakuntzako kultur etxean

Aurtengo Nafarroako Haur eta Gaztetxo Kantarien Jaialdiak lau izanen dira guztira. Aurrenekoa Zangozan izanen da bihar. Merinaldeburuari Lakuntzak hartuko dio lekukoa etzi. Lesakak (hilaren 25ean) eta Orkoieneak (apirilaren 1ean) segituko diote. Azken jaialdi handia Tafallan izanen da apirila akaberan. Banaka, binaka edo taldeka euskal kantak abesteko aukera izanen dute horietan sortzaile gaztetxoak. Lakuntzan zortzi talde eta bikote bat ariko dira. Guztira 150 kantari, eta haiek laguntzen 13 musikari.

Nafarroako Haur eta Gaztetxo Kantarien Jaialdien helburua 6 eta 16 urte bitarteko haur eta gaztetxoaren artean kantu zaletasuna sustatzea da. Horrekin batera

elkarlanean lan egiteko eta beste herrietako adinkideekin erlazionatzeko aukera ematen dute jaialdiek. Nafarroako Kantuzaleen Elkarteak antolatzen zituen jaialdiak, baina diru-laguntzak bertan behera gelditu ondoren lekukoa Amaia Dominguez Gonzalo Tafallako ikastolako irakasleak hartu zuen. Hainbat laguntzaileekin batera errealitate bihurtu dute jaialdia atzera ere.



Lakuntzako parte-hartzaileak

Kantua	Egilea
Sanduzelako eskola (10-11 urte)	Euskararen txantxangorria
Sanduzelako eskola (11-12 urte)	U. Artola, G. Sarriegi eta D. Venegas
Lakuntzako eskola (6-8 urte)	Aldapan gora
Lakuntzako eskola (8-9 urte)	Huntza
Lakuntzako eskola (9-10 urte)	Astonauta tronpeta flauta
Lakuntzako eskola (10-11 urte)	Ene kantak
Lakuntzako eskola (11-12 urte)	Euskharan
Lakuntzako eskola (10-11 urte)	En Tol Sarmiento
Lakuntzako eskola (8-12)	Airea
	Enkore
	Zirkorrika
	Jarauta 69 eta Oreka Tx
	Balearen bertsoak
	Herrikoia
	Ilargia
	Ken Zazpi
	Arbolatik hostoa
	Oskorri

Udaberriko dantza festa

Larunbatean, 19:00etan, Altsasuko Iortia kultur gunean

Altsasuko Musika eta Dantza eskolako 50 bat dantzari jaialdi berezia eskainiko dute. Dantza ikuskizuneko protagonistak eskolako txikiak eta adinduek izanen dira. Iñaki Agirre Larraza irakasleak azaldu digunez, dantza jaialdiak bi zati izanen ditu. Aurrenekoan euskal lurraldeetako tradizio-dantzak eskainiko dituzte.

Bigarrenean, berriz, euskal dantza-ko pausoak erabiliz sortutako koreografiak dantzatuko dituzte. Koreografia horiek Mikel Urdangarin, Kepa Junkera, Fran Idareta, Esne Beltza edota Alboka taldeen airekin dantzatuko dituzte.

Orain arte jaialdian eskolako ikasle guztiak parte hartzen zuten. “Ehun bat dira eta nahikoa lana zen guztiakin aritzea eta hirutan banatu ditugu” azaldu digu Agirrek. Gainontzeko ikasle talde-



ak, 12 eta 15 urte artekoak, bate-tik, eta 15 urtetik 20 urte inguru-koak, bestetik, udaberriaren aurrei-kusitako dantza jaialdian ariko

direla aurreratu digu Agirrek: “apirilean eta maiatzean izanen dira. Gai baten inguruko jaialdi bereziak izanen dira”.

G

asteko >> : eguraldia

ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: 5%	euria: 10%	euria: 5%	euria: 15%	euria: 40%	euria: 60%	euria: 80%
Min: 10 Max: 19	Min: 7 Max: 13	Min: 5 Max: 18	Min: 6 Max: 19	Min: 8 Max: 11	Min: 7 Max: 12	Min: 5 Max: 10

: temperatura >>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m ²
Irurtzun	26	1.5	41.8
Etxarri A.	27.3	0	41.5
Altsasu	25	2	48.9
Aralar	18.3	-0.4	49.3
Urbasa	-	-	-

: ilargiaren aldia >>

ilbehera	ilberri	ilgora	ilbete
20	28	3	11

EGOKI

VENTANAS PVC LEIHOAK

www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

Etxe pasiboetarako egokia

s 9000

Beirak lehorrean jarrita

Isolamendu nukleo indartsua

Aparteko azala koloreztatua

Bazkide zozketa

MARSUKO SARIAK:

1. SARIA:

Ekainberri: 2 sarrera
Artazako Kanpina: %10eko deskontua
Lacturale: esneki lotea
Gaztezulo: 3 hilabetez doan
Magna Gurpea: 2 sarrera

2.,3. ETA 4. SARIA:

Artazako Kanpina: %10
Lacturale: esneki lotea
Gaztezulo: 3 hilabetez doan
Magna Gurpea: 2 sarrera

Ekain berri

>> 11 galdera

Leire Maiza Razkin

Txirrindularia

Testua: Maider Betelu Ganboa



Udal buletinak, aldizkariak...

gk

KOMUNIKAZIOA

Foru plaza, 23-1. Altsasu | 948 564 275 | 948 562 107
gk@gkomunikazioa.eus | www.gkomunikazioa.eus

Sekulako ahalegina egin ondoren, emakumezkoen Nafarroa Ermitagaña Navarra taldea sortu da. Aurreko astean aurkeztu zuten, Nafarroako Kirol eta Gazteria Institutuko zuzendari Ruben Goñi bertan zela. Talde sortu berriko Leire Maiza etxarriarrarekin bildu gara.

- 1. Emakumezkoen taldea sortzeko instituzio eta entitate askoren babesa izan du Ermitagaña klubak.**

Bai. Babesleen artean Nafarroako Gobernua, Iruñeko Udala, Lodosakoa eta Etxarri Aranzakoa ere badaude. Nafarroa Ermitagaña Navarra txirrindularitza talde berria da, emakumezkoena.
- 2. Ermitagaña klubekoak zarete, ezta?**

Bai, Ermitagaña klubekoak gara. Ermitagaña beste talde batzuk ere baditu, 23 urtez azpiko gizonzkoen talde afizionatua eta gero eskolak, kadeteak eta jubentilak. Klub bera da, baina gurea emakumezkoen Nafarroa Ermitagaña Navarra taldea da.
- 3. Zenbatek osatzen duzue taldea?**

15 eta 19 urte bitarteko 13 neskek osatzen dugu taldea. David Latasa da gure entrenatzailea. Sei kadete, lau jubentil eta 23 urtez azpiko txirrindulari bat gaude. Ni kadetea naiz, 2. urtekoa.
- 4. Zenbat sakandar zaudete?**

Maria Beraza uhartearra, Barañainen bizi dena eta ni. Maria kadetea da, lehen urtekoa. Gainontzeko neska gehienak Iruñekoak dira, baina badago Elizondoko bat, Lodosako bat, Tuterakoa... Nafarroa guztitik gaude.

- 5. Zein lasterketan arituko zarete, soilik emakumezkoak diren edo mutilekin batera lehiatuko zarete?**

Saiatuko gara ahalik eta lasterketa gehienak emakumezkoen izaten, baina asko ez daudenez, ez da kontua ere denboraldia etetea eta tarteka lehiatu gabe aritzea, une horretan emakumezkoen probarik ez dagoelako. Hortaz, gizonzkoen probetan ere ariko gara. Batzuetan proba hauek ez ditugu bukatzen, baina saiatzen gara ahalik eta gehien aurreratu.
- 6. Pozik zaudete talde berrian, ilusionatuta?**

Bai, proiektu berria da; aspaldiko partez Nafarroan emakumezkoen taldea dugu. Oso interesgarria izango da talde berria nola dabilen probatzea, ea aurreratu den. Eta ongi ateratzen bada, neskek hemen dute taldea. Izan ere, guk zailagoa izan dugun hori erraztea da asmoa.
- 7. Orain arte zein taldetan ibili zara?**

Lakuntzako Aralar klubean aritu nintzen txirrindulari, kadete mailara arte. Izan ere haurren maila bukatzerako arte, neskek eta mutilak, guztiak aritzen gara bate-

ra. Baina haurren maila bukatzerakoan, kadete mailan dagoeneko neskendako probak daudenez, neskekin konpetitzera zoaz. Horrela, emakumeen taldeetara salto egin beharra dago. Nik iaz debutatu nuen kadeteetan. Toloako talde batean ibili nintzen, Rural Kutxa Bide Bidean. Hiru neska nafar geunden han. Eta aurten Nafarroa Ermitagaña Navarra taldera etorrinaiz. Kadeteen 2. urtea izango da.

- 8. Gainontzeko txirrindulari sakandarrak non dabilta?**

Nik dakidala, Joana Irastorza etxarriarra eta Maialen Aramendia iturmendiarrak Gipuzkoan daude, CAF Turnkey Engineering taldean. Eta Bakarne Gonzalez altsasuarrak ere txirrindularia da. Gipuzkoan badaude emakumeen bi talde. Hala ere, gutxi da.
- 9. Nafarroa Ermitagaña taldearen helburua zein da?**

Euskadiko Txapelketan ariko gara eta Espainiako Kopan eta hortik kanpo, ahalik eta gehien ibili nahi dugu. Ez da horrenbeste garaipenak lortzea, baizik eta taldea sendotzea. Hori da helburu nagusia.
- 10. Aldi berean Sakana Triatloi Taldeko kidea zara. Taldearekin lehiatzeko astia izango duzu?**

Tarteka bai. Duatloi probetan ibiliko naiz, triatloietan, aldiz, ez.
- 11. Zorte ona ibilbide berrian! Eskerririk asko!**